

I. MODULUA

GATAZKA. GATAZKAK KONPONTZEKO ESTRATEGIAK

AURKIBIDEA: Gatazka. Gatazkak konpontzeko estrategiak.

LEHEN SAIOA: Gatazka.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Etiketa". Aurkezpen jarduera.
- "Ideia zaparrada". Gaia lantzen hasteko jarduera.
- "Zer da zuretako gatazka hitza?". Gaian sartzeko testua.
- "Gatazkara hurbiltzen". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Gatazka bat aztertzea".

BIGARREN SAIOA: Gatazkei aurre egiteko estiloak.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Altxor bila". Elkarrekiko ezagutza lantzeko eta konfiantza garatzeko jarduera.
- "Gatazka-postontzia". Gatazka bat aztertzea.
- "Gatazkei aurre egiteko estiloak". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Gatazkei erantzuteko estiloak". Testua irakurri eta kasu laburrak aztertzea.
- "Nola egiten diet aurre gatazkei". Autoezagutzaren dinamika.
- "Gatazken aurrean nire estiloa". Norberak gatazkei aurre egin behar dienean nahien duen estiloaz jabetzeko testa.

HIRUGARREN SAIOA: Gatazketan gauzak ikusteko moduak

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Ispilua". Hasierako dinamika bikoteka.
- "Mila orban eta bat gehiago". Hautematearen gainean hausnartzeko jarduera.
- "Nola dakusazu?". Ilusio optikoak power point diapositiben bidez aurkezturik.

- "Esadazu nola hitz egiten duzun, esanen dizut..." Gatazkaren kontzeptuan sakontzeko taldekako jarduerak.
- "Rolak aldatuz". Gatazka batean ikuspuntu desberdinak esperimendatzea.
- "Begirada". Narrazio testu bat irakurri eta pentsamenduaren distortsioen gaineko iruzkinak egitea.

LAUGARREN SAIOA: Emozioak eta sentimenduak gatazketan.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Bikoteak". Komunikazioa sustatzeko hasierako dinamika.
- "Emozioak argituz". Gatazken azpian dauden sentimentuak eta emozioak aurkitzeko gaitasuna garatzeko jarduerak.
- "Emozioak". Ezagutza eta oinarriko emozioen adierazpenean sakontzeko jarduerak.
- "Emozioei izenak jarritz". Emozioak identifikatzeko jarduerak.
- "Amorrua kontrolatzea". Testua irakurri eta taldean lantzea.
- "Baloiz mezularia". Emozioen adierazpena eta ulermena bizitzeko talde-dinamika.

BOSGARREN SAIOA: Gatazkek nola egiten duten "gora".

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren...". Elkarren ezagutza garatzeko hasierako jarduerak.
- "Adierazpenarekin jolastuz". Mezuen esanahiak nola aldatzen diren esperimendatzeko talde-dinamika.
- "Gatazka sortuz". "Gora" egiten duten gatazkek gertatzen diren egoerak bizitzeko jarduerak.
- "Enkantea". Gatazkan "harrapatua" izatearen sentipena bizitzea.
- "Gatazkaren dinamika". Testua irakurri ondoren, talde txikian aztertzea.

- "Irainen aurreko erreakzioa". Talde-dinamika.

SEIGARREN SAIOA: Gatazkak konpontzea.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Puzzle kolektiboa". Talde-lankidetzarako hasierako jarduera.
- "Gatazkak nola konpondu". Testua irakurri eta prozedura aplikatzea.
- "Xekearen herentzia". Gatazkak konpontzeko estrategiak aztertzekeo kontakizuna.
- "Gatazkak era baketsuan konpontzearen balioak". Hausnartzeko eta adostasuna lortzeko jarduera.
- "Gatazka baten aurrean, zer egin?". Gidatutako jarduera, gatazkak konpontzeko praktika onen dekalogoia diseinatzekeo.

ZAZPIGARREN SAIOA: Gatazkak konpontzeko estrategiak: arbitrajea, epaiketa, bitartekotza.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Argituz entzuten ari garenean". Entzute aktiboa praktikatzeko hasierako jarduera.
- "Entzuten jakin". Gatazka bat konpontzen laguntzen duen pertsonaren nolakotasunak.
- "Ezer baino lehen". Gatazkak konpontzeko zenbait prozeduratara hurbiltzea.
- "Prozedura desberdinen azterketa". Prozeduren arteko antzekotasunak eta aldeak.
- "Konpondurik daude?" Testua irakurri eta gatazka bat aztertzea, konponketaren irizpide objektiboen arabera.

ZORTZIGARREN SAIOA: Negoziazioa eta bitartekotza.

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Asertibitatea praktikatu".
- "Negoziatu". Testua irakurri eta eta negoziatzioa praktikan jartzea.

- "Gatazken bitartekotza ikastetxeetan". Bideoa ikusi eta aztertzea.
- "Bitartekariak egin behar duena". "Bitartekarien ohiko akatsak: egin behar ez dena" dokumentua irakurri eta bitartekariarendako praktika onen dekalogo bat prestatzea.

BEDERATZIGARREN SAIOA: Bitartekotzan (I).

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Bitartekotza". Power pointeko diapositiben aurkezpena.
- "Bitartekotzan". Behaketa eta azterketarako talde handian egindako jarduera.
- "Bitartekotzak ikastetxean dituen abantailak eta desabantailak". Hausnartzeko eta adostasuna lortzeko jarduera.

HAMARGARREN SAIOA: Bitartekotzan (II).

- Saioaren aurkezpena: helburuak eta jarduerak.
- "Bitartekotzan". Bitartekotza-kasuak erakusteko jarduera (hirunaka). Aztertu eta bateratzea.
- "Amaierako balantzea". Prestakuntzan zehar egindako jarduerak ebaluatzeko jarduera.

LEHEN SAIOA: Gatazka.	cos01a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Parte-hartzaile guztiak euren izenez ezagutzea.• Taldean parte hartzeko dinamikak garatzea.• Gatazkaren kontzeptura hurbiltzea.• Gatazkak aztertzen hastea. <p>JARDUERAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• "Etiketa". Aurkezpen jarduera. Taldean parte hartu behar duten pertsona guztiak ezagutzen hastea.• "Ideia zaparrada". Gaia lantzen hasteko jarduera, taldekideen esperientzien eta ekarpenen bidez gatazkara hurbilduz.• "Zer da zuretako gatazka hitza?". Gaia lantzen hasteko testua, bikoteka komentatzeko.• "Gatazkara hurbilduz". Power pointeko diapositiben aurkezpena.• "Gatazka bat aztertzea". Gatazka bat abiapuntu harturik, 4-5 pertsonako taldeetan gatazka aztertu Lederachek (1989) proposatutako eskeman oinarrituriko gidoiari jarraituz.	

Etiketa	cos01a01
<p>HELBURUA: Lantaldean parte hartzen duten kide guztien izenak ezagutu eta ikastea. Norberari buruz zerbait adieraztea idazketaren eta marrazketaren bidez.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Etiketa zuri handi batean norberak bere izena idatziko du karaktere handitan, urrunetik irakur dadin. Izenaren alboan norberak bere gogoia, kalitate bat, desio bat edo asmo bat agertuko duen zerbait marraztuko du. Etiketak bularrean jarriko dira. Zenbait minutuz gainerakoenei erreparatuko zaie eta marraztutako ikurraren gaineko galderak egiterik izanen da. Izen guztiak buruz ikasteko ahalegina egin behar da. Lehen egunean etiketa saio osoan eramanen da jarrita.</p> <p>Aldaerak: Proposa daiteke nor bere buruarekin identifikaturik ikusten duen animalia bat, lore bat, objektu bat marraztea edo hitz bat gehitzea...</p>	

Idea zaparrada: gatazka.	cos01a02
<p>HELBURUA: Gatazkaren kontzeptura hurbiltzea, taldekideen ideiak eta esperientziak erabiliz.</p> <p>PROZEDURA: Gatazka hitzaren gaineko ideia zaparrada egingen da. Pertsona bakoitza gatazka terminoaz burura etortzen zaizkion hitzak esaten hasiko da. Hitz guztiak arbelean idatziko dira. Ekarpen berririk ez dagoenean, atera diren kontzeptuak aztertuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- bada ideia suntsitzailerik edo mehatxatzailerik?- bada ideia eraikitzailek eta positiborik?- denek esanahi bera ematen diete hitzei?- uneko gertakari bat ala prozesu bat bezala hartzen da?- zer elementu ageri da?- prebentziorako alderdirik ageri da?- taldean zer ideia gailentzen da?-	

Zer da zuretako gatazka hitza?	cos01a03
Testua irakurri eta bikoteka komentatu ondoren, definitu zer den gatazka.	
Irakasleek esaten dute:	
Gatazka beti zerbait positiboa da	%0,8
Gatazka gehienetan zerbait positiboa da	%4
Gatazka gehienetan zerbait negatiboa da	%70
Gatazka beti zerbait negatiboa da	%12,6
Beste batzuk/Ez du erantzun	%12,6
Galiziako Bigarren Hezkuntzako 1131 irakasleko lagin bati egindako inkesta (2000), "Educación y conflicto" liburuan bildua.	
Ikasleek esaten dute:	
Gatazka beti zerbait positiboa da	%1,3
Gatazka gehienetan zerbait positiboa da	%2,8
Gatazka gehienetan zerbait negatiboa da	%53
Gatazka beti zerbait negatiboa da	%37,4
Beste batzuk/Ez du erantzun	%5,5
Galiziako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. kurtsotik 4. kurtsora bitarteko 11.003 ikasleko lagin bati egindako inkesta, Jarés-ek "Educación y conflicto" liburuan bildua.	
Zenbait teoriarik uste dute:	
<p>Bizikidetzak bere-berezkoa du gatazka. Inor, inongo gizatalderik (...) ez dago gatazketatik salbuetsita. Elkarrekin bizitzeak haserrealdiak sortzen ditu eta horien izaera eta larritasuna askotarikoa da. Gatazka ez da diziplina ezaren ordaina. (Casamayor, 2000)</p> <p>Arazoa da gatazkek bide eraikitzaile edo deuseztailea har dezakeela eta, beraz, kontua ez da gatazka ezabatzea edo hari aurrea hartzea, baizik eta egoera gatazkatsu horiek bereganatzen jakitea eta baliabide nahikorekin aurre egitea, egoera horietan inplikaturiko guztiek haiekin aberats daitezten. (Alzate, 1998)</p> <p>Nahitaezkoa da ezarrita uztea gatazkek ez dakarrela berekin jokabide bortitza. Bi termino horiek maizegi nahasten dira zenbait baliabide eta argitalpenetan eta horrek zailagoa egiten du esku hartzeko proposamenak egitea. (Cerezo, 2001)</p> <p>Beraz, onar dezagun halako oldarkotasun-maila jakin bat aktibatzen dela gizakiak gatazkari aurre egiten dionean, bereziki gatazka interesen arteko borroka modura hartzen bada. Norbera bere buruaren jabe izatea eta gatazka egoeretan bestearen oldarkortasunari eutsi eta hura kontrolatzeko lana, ikasten den prozesu bat da. Baina ikaste honetan, beste askotan bezala, denok ez dugu arrakasta bera lortzen. (R. Ortega, 2000)</p>	

Gatazka bat aztertzea

cos01a05

Irakurri ondoko gatazka hau, komentatu zure taldeko kideen artean eta aztertu "Gatazka aztertzekeo gida" erabiliz.

"Patxi eta Miren Saioaren gurasoak dira. Saioa Lehen Hezkuntzako 6. kurtsoan ikasten ari den 12 urteko neskato bat da. Ikasturteko lehen hiruhilekoa igaro da eta aurten, gainerakoetan ez bezala, Ritak, Saioaren tutoreak (Rita tutore berria da eta lehen aldiz irakasten ari da ikastetxean) ez ditu gurasoak inongo bileretara deitu. Saioak arazorik ez du ikasketetan. Hala ere, bere gurasoek ohitura dute hiruhilean behin irakasleekin aurrez aurre hitz egiteko. Halaxe erabaki zuten: Patxik hitz eginen zuen tutorearekin Saioa goizeko 9etan ikastetxean utzi behar zuenean. Orduantxe eskatuko zion elkarrizketa.

Eta hala egin zuen. Ritak, lanbide karreraren lehen urratsetan dagoen irakasle gazteak, erantzun zion gurasoak hartzeko eguna astearte zela, 17:00etatik 18:00etara. Patxik esan zion ordu horretan laneko arrazoiengatik Mirenek ezin zuela. Ritak erantzun eta galdetu zion berak arazoren bat ote zuen. Patxik ezetz erantzun zion: nahiago zuela senar-emazteak elkarrekin joatea. Ritak behin eta berriz esan zion astearte zela ikastetxeak gurasoak hartzeko ezarritako eguna eta gurasoek erabaki behar zutela joan nahi zutenetz, itxaron zerrendan apuntatzeko. Egoera horren aurrean, Patxik atsekabeturik alde egin zuen, bere ustez irakaslearen jarrera «itxia» eta «funtzionario txarrarena» baitzen. Handik bi egunetara Ritak honako ohar hau bidali zien: «Saioaren guraso maiteok: Zuen alabaren lana eta ibilbidea nolakoa den jakin nahi duzue. Berrito diotsuet: astearteetan hartuko zaituztet, 17:00etatik 18:00etara. Baina ezin baduzue, ez larritu ez baita elkarrizketarik behar. Saioa neskato paregabea da eta ez du inolako arazorik eskolan. Adeitasunez, Rita». Patxiri eta Mireni ez zitzaaien batere gustatu ohar hori eta, beren ustez, haren esperientzia ezaren edo bere irakaslan oker ulertzearen ondorio izanen zatekeen. Esan beharra dago biak ala biak irakasleak direla.

Egun batzuen buruan, berrito saiatu zen Patxi. Berrito itzuli zen goizeko bederatzieta Ritarekin hitz egitera. Jakin nahi zuen ea hirurek elkarrizketa egiteko aukera izanen zuten, berek bilera egin nahi baitzuten eta ahal balitz hirurak bertan zirela.

Ritarekin izandako hitzordu berri honetan, Patxik galdetu zion, atsekabez, ea gurasoek soilik hitz egin zezaketen irakasleekin ikasleek arazoak zituztenean eta, horretaz gainera, ez lituzkeela haiek informatu behar soilik. Orobat, Patxiren ustez, gurasoek ere ziotena entzun beharko luke Ritak, Saioa etxean nolakoa den eta zer gauzek kezkatzen dituen jakin dezan.

Argudio horiek Rita harriturik utzi zuten eta ez zuen jakin izan zer erantzun. Patxiri begiratu eta esan zion: «Oso ongi iruditzen zait esaten duzuna, baina nik haurtxo bat dut eta ezin dut arratsaldeetan utzi, astearteetan izan ezik, egun horretan etortzera beharturik bainago eta egun horretan haurtxoa oso helduak diren nire gurasoekin uzten dut». Jarraian, Ritak beste aukera hau eman zion: nahi baduzu ostiralean bilduko gara, 14:00etan, klaseak bukatu ondoren, bilerak oso luze jotzen ez badu bederen. Patxik onartu zuen eta biharamunetan erantzunen ziola esan zion. Azkenean, hirurak elkartu ziren."

(Jarés-en Educación y conflicto liburutik hartu eta egokitua)

GATAZKAK AZTERTZEKO GIDA

(Lederach-etik egokitua)		
Osagaiak	"A" zatia	"B" zatia
1. Pertsonak <ul style="list-style-type: none"> Nor dira protagonistak? Nola eragiten dute hirugarrenek? 		
2. Emozioak eta sentimenduak <ul style="list-style-type: none"> Nola eragiten die? Alde bakoitza nola sentitzen da? 		
3. Hautematea <ul style="list-style-type: none"> Alde bakoitzak nola hautematen du gatazka? 		
4. Gatazkaren prozesua eta unea <ul style="list-style-type: none"> Zerk eragin zuen? Nondik dator? Polarizaturik, enkistaturik... dago? 		
5. Harremana <ul style="list-style-type: none"> Zer harreman dute aldeen artean? Nola komunikatzen dira? 		
6. Posizioak <ul style="list-style-type: none"> Zer eskatzen dute? Alde bakoitzak zer eskatzen du? 		
7. Interesak eta beharrak <ul style="list-style-type: none"> Alde bakoitzak zer konpondu nahiko luke? Zergatik edo zertarako eskatzen du? 		
8. Printzipioak eta baliok <ul style="list-style-type: none"> Pertsonen, arauen edo mundua ulertzeko moduen gaineko sinesmenak, irizpideak, itxaropenak. 		
9. Konponbideak <ul style="list-style-type: none"> Zer proposatzen du bakoitzak? Nola geldituko litzateke pozik? Zer egingen edo emanen luke gatazka konpontzeko? 		

BIGARREN SAIOA: Gatazkei aurre egiteko estiloak	cos02a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Pertsona guztien parte-hartzea sustatu eta taldean giro lasaia sortzea.• Parte-hartzeko eta barneratzeko dinamikak garatzea.• Gatazkei aurre egiteko estiloak ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Altxor bila". Taldeko pertsonen arteko elkarrezagutza lantzeko eta konfiantza garatzeko jarduera.• "Gatazka-postontzia". Gatazka aztertzea 5-6 pertsonako taldeetan, pertsona inplikatuak gatazkari erantzuteko dituzten estiloak bereziki behatuz.• "Gatazkei aurre egiteko estiloak". Power pointeko diapositiben aurkezpena.• "Gatazkei erantzuteko estiloak". Testua irakurri ondoren, aztertu bikoteka lau kasu laburretan gertatzen diren gatazkari aurre egiteko estiloak.• "Nola egiten diet aurre gatazkei". Autoezagutzarako dinamika, gatazken aurreko jarrerak aztertuz.• "Gatazken aurrean nire estiloa". Norberak gatazkei aurre egin behar dienean nahien duen estiloaz jabetzeko testa. Nor bere kasa egitekoa.	

Altxor bila

cos02a01

HELBURUA: Ezagutza parte-hartzaile guztiengan sustatzea eta taldean giro lasaia eta atsegina sortzea.


PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari "Altxor bila" izeneko taula duen orri bat banatuko zaio. 10 minutuz osatzen ahalegintzeko eskatuko zaie. Multzoan bilatu behar dira taulan ageri diren zortzi ezaugarriak partekatzen dituzten bi pertsona. Bitartean, parte-hartzaile guztiak zutituko dira eta elkarri galderak eginen dizkiote eta puntu guztiak betetzen saiatuko dira. Denbora iraganik, labur hitz eginen da ea item guztiak bete dituzten edo ez, eta gainerakoei buruz ez zekiten gauzaren bat aurkitu ote duten.

Amani (1996); Brunet eta Negro (1988)

Gatazka-postontzia	cos02a02
<p>HELBURUA: Gatazka bat aztertzea, eta gatazka horri aurre egiterakoan ageri diren ikuspuntuak eta estiloak konparatzea.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaileak 4-5 pertsonako taldeetan banatuko dira. Animatezaileak bizpahiru aldiz irakurriko du ahots ozenez gatazka kontatzen duen testu bat, eta hura konpontzeko laguntza eskatuko du. Talde bakoitzak gutunean planteatutako arazoari egokitutako erantzuna idatzi beharko du. 20 minuturen buruan, talde bakoitzak emandako erantzunak bateratu eta aldeak aztertuko dira. Talde bakoitzak bere erantzuna arrazoitzeko zergatiak argudiatuko ditu.</p> <p>Testu-eredua:</p> <p>“Zikloko nire lankidea, Marisa, ez da sekula ordurako iristen. Goizetan 5-10 minutu berandu etorri ohi da. Ikastetxean ikastalde bakoitza bere tutorearekin batera sartzen da –tutoreak hartzen ditu ikastalde bakoitzari dagokion atean–. Marisaren ikasgelakoak bakarrik igotzen ziren, zalaparta batean. Hori ikusita, zenbait irakaslek zuzendariarengana jo zuten eta kexa agertu zioten ikasle horiek klaseko lehen 5-10 minutuetan ikasgelan bakarrik egoten zirelako eta zalaparta handia ateratzen zutelako. Zuzendariak bi hilabete besterik ez zeramatzan karguan; ez zen ausartu zuzenean ezer ere esatera. Bere ustez, onena klaustroan hitz egitea zen, denei zuzenduz eta pertsonalizatu gabe. Bilera horretan esan zen sarrera-sistema ez zela txarra, baina zenbait tutore ez zela orduko iristen klasera. Hori dela-eta, erabaki zen ikasle lerro edo talde bakoitza klasean sartuko zela soilik haiekin tutorea bazegoen. Hala, ez zen ikasgeletan tutorerik gabeko ikastalderik izanen. Erabaki horrek eragin zuen Marisaren taldea ia beti sartzen azkena izatea. Eta hori ez zen ikasleen gustukoa. Irakasleak kexaka hasi ziren azkenak sartzen zirelako. Egunak joan egunak etorri, zuzendaritza konturatu zen ikasleekin beste gatazka bat sortzen ari zela. Egoerak bere horretan iraun zuen zenbait egunez. Baina ikasleak ez zeuden pozik eta ikasle talde hori gehienetan ikasgelan sartzen azkena izateak sortzen zuen itxura txarra ikusita, zuzendariak nigana jo zuen eta eskatu zidan, Marisa orduko iristen ez zenean, ikasle taldearen ardura hartzeko ikasleak ikasgelan sartzean. Zur eta lur gelditu nintzen eta ez zitzaidan batere justua iruditu. Hala ere, hurrengo bi egunetan agindutakoa egin nuen. Hirugarren egunean, aldiz, ikasleekin ikasgelarantz nindoala, Marisa iritsi zen eta zakar esan zidan zer ari nintzen bere ikasleekin. Saiatu nintzen bada jolasaldian harekin hitz egiten eta egoera azaltzen, baina ihes egiteaz gainera, hotz jokatu zuen nirekin. Orain ni nago gaizki eta ez dakit zer egin”.</p> <p>Aldaerak:</p> <p>Ikastalde bakoitzari testu idatzia emanaz egin daiteke.</p>	

<u>GATAZKARI ERANTZUTEKO ESTILOAK</u>	cos02a04
GEUZ-etik egokitua (2005)	

Pertsonak egoera gatazkatsuei erantzun ohi diegu egoera horri nagusiki aurre eginez. Erantzuteko estiloetako bat menderatzailea bada ere, gai gara gatazken arabera estiloz aldatzeko, baita gatazka beraren aurrean eta gatazka garatzen den bitartean ere.



Lehiaketa-Norgehiagoka

Jarrera lehiakorrek noberaren interesak asebetetzea du helburu, bestearen interesen gaintik, beharrezkoa bada. Irabazi-galdu motako gatazkaren ikusmolde klasikoa islatzen du. Negoziazioaren emaitza harremana baino garrantzitsuagotzat hartzen da. Gatazka "galera-irabazia" motako gai modura hartzen da. Uste da aldeetako bat dela egiaren jabe eta beste aldea okerturik dagoela. Hori dela-eta, irabazteko aurrez aurre dauden subjektuak beharturik daude arrazoia dutela frogatzera.

Saihestea

Saihesteko jarrera usu agertzen da, atzera eginez edo axolagabetasuna erakutsiz. Honek ez du esan nahi gatazkarik ez dagoenik, baizik eta konpontzea merezi ez duen zerbait bezala ulertu dela. Hala, gatazka ezkutuan dago eta beste noizbait eta beste modu batean ager daiteke. Estrategia honetan ez dago kezka handirik harremanaz eta emaitzez. Gerta daiteke kostuak handiegiak direlako, eta gaia bertan behera uztea delako onena. Saihesteko beste modu bat arazoa dagoenik ere ukatzea; maiz erabiltzen da.

Egokitzea

Egokitzea estrategia bat da, zeinetan harremana oso garrantzitsua den, emaitza ez bezala.

Nahi da besteak irabaztea; ez da harremana arriskutan jarri nahi etekinen bat erdiesten ahalegintzeagatik. Estrategia hau erabiltzen da trukearen helburu nagusia harreman bat eraiki edo indartzea denean, eta norberaren helburuak ez lortzea ere alde batera uzteko prest dagoenean norbera. Esan daiteke honako hau ere badela gatazka saihesteko beste modu bat, ados egotea ez egotea baino errazagoa delako.

Konpromisoa

Konpromisoak berekin dakar aldeetako batek bere interesez arduratzeari uko egin gabe, bere posizioa gozatzea beste aldearen interesak ere kontuan hartzen dituelako. Arazoa bi jarreraren arteko erdi-puntura iristeko ahalegin modura hartzen da, hau da, nola "banatu" erabakitzea. Arazoa konpontzeko bakoitzak zertxobait egin beharko du atzera erdi-puntu batera iritsi arte, jakina.

Lankidetz

Aurre egiteko beste modu honetan emaitza eta harremana garrantzitsuak dira. Aldeak ahalik eta emaitzarik onena lortzen saiatzen dira, aldi berean euren arteko harremana mantenduz edo indartuz. Aldeek gatazka naturaltzat hartzen dute giza harremanetan eta ez zerbait txarra gertatu den zerbait bezala. Kezka ez da "nork duen arrazoi" eta "nor dagoen okerturik", baizik eta bi aldeendako egokia den soluzioa aurkitzea.

Jarraian, pentsatu bikoteka kasu bakoitzean gatazka konpontzeko zer estilo gailentzen den

1. Koldo bat-batean altxatu zen eta gogor astindu zuen. Jonek ez zuen atzera egin eta beste ukabilkada batekin erantzun zion. Bitartean, irakaslea izen-sintagmaren eskema idazten ari zen arbelean. Itzuli zenean, gertatutakoa ikusi zuen. Berehala, esan zien bereizi eta ikasgelatik ateratzeko. Gelditu beharrean, Jonek Koldo iraintzen jarraitu zuen. Irakasleak ez zuen beste aukerarik izan, haiengana hurbildu, bereizteko heldu eta korridorera atera zituen. Ikasketa-buruarengana eraman zituen eta etxera egotzi zituzten 2 egunerako.

2. Amaiak telebistan "reality show" programa bat ikusi nahi du. Aldi berean, Julen bere anaiak beste kate batean ematen duten futbol-partiden laburpena. Borrokatzen hasi dira, nork hartu urrutiko agintea. Ez direnean eskuetara iritsi! Ama egongelan sartu da eta gertatzen denari erreparatu dio. Bien nahiak asebeteko dituen konponbidea bilatzeko esan die; bestela, telebista itzaliko da. Une batez eztabaidan aritu ondoren, Amaiak eta Julenek erabaki dute kirol laburpenak ikusiko dituztela Julenen gogokoa den taldearena atera arte. Orduan beste katea jarriko dute.

3. Marta eta Kontxi lankideak dira. Oso dira ezberdinak: Martari ordu-orduan etortzea eta arauak zorrotz betetzea gustatzen zaio. Erdi-txantxetan, erdi serio, Kontxik esan dio oso zurruna dela. Gauzak arinago hartzen ditu Kontxik. Lanak bakoitzak bere aldetik egin behar dituztenean ez da arazorik gertatzen. Okerrena da elkarrekin egin behar dituztenean. Orain horixe bera gertatu da. Nagusiak oso lan zaila egiteko agindu die. Martak lana emateko epea baino lehenago egin nahi du. Ez du batere gogoko gauzak azken unean egitea. Kontxik ez du batere gustuko lan hau eta uste du bere eginkizunetatik harago doala. Luzamendutan dabil. Azken aukera modura, uste du nagusiari esaten ahal diotela ezin dutela egin, eguneroko lanekin oso zamaturik daudelako. Martak ez du atzera egin eta lana astelehenean egiten hastea erabaki dute, kafea hartu ondoren. Iritsi da, bada, astelehena eta beren lankideekin kafea hartzera atera direnean, Kontxik Martari esan dio dentistarengana doala eta ez dela goiz osoan itzuliko. Marta gorritu da eta haserre erantzun dio nahita egin duela, lanak ez diola axolarik eta beste kontu gogor batzuk ere esan dizkio. Kontxik jasangaitza dela erantzun dio. Haserre egin du alde, hitzik gehiago ez zuzentzeko asmoarekin.

4. Andreak 14 urte ditu eta aurten bere lagun neskekin ateratzen hasi da; "topera" pasatzeko asmoa du. Jadanik ez dute nahikoa auzoan itzuliño bat ematearekin edo litxarreriak saltzen ditzuzten dendan erostearekin. Erdialdera igo eta institutuko ikaskideekin geratu nahi dute. Andrearen ama estu dabil, uste baitu Andrearen lagun neskek etxera itzultzeko adosturiko ordutegiak duten adinerako gehiegizkoak direla. Eztabaida bat baino gehiago izan dituzte eta azken larunbatean Andrea ezarritakoa baino bi ordu beranduago etxeratu zen. Borrokak eta mehatxuak izan dira. Aurpegi txarrarekin astebete igaro ondoren, amak Andreari proposatu zion soseguz hitz egin behar zutela bakoitzak bere beharrak zein diren azaldu ahal izateko.

Nola egiten diet aurre gatazkei

cos02a05

HELBURUA: Norbanakoen gatazkak konpontzeko estrategiak ustiatzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiei eskatu behar zaie jarrera eroso eta erlaxatua hartzeko, begiak ixteko eta arnasketan kontzentratzeko. Den-denak erlaxaturik daudenean, animatzailea hitz egiten hasiko da:

"Oinez zoaz kaletik. Bat-batean, ez urrun, ikusi duzu nola datorkizun zure aldera ezaguna egiten zaizun norbait. Ezagutu duzu, harekin liskarretan zabiltzalako. Konturatu zara berehala erabaki behar duzula elkarretaratze honi nola egin behar diozun aurre. Hurbiltzen ari den bitartean, zure burutik zernahi alternatiba pasatu dira. Oraitxe berean erabaki behar duzu zer egin behar duzun eta elkarretaratze honi nola egin behar diozun aurre..."

Animatzailea une honetan gelditu eta une batez isilik geratu ondoren, jarraitu egingen du:

"Pertsona jadanik igaro da. Zer moduz zaude?"

Eskatu behar da begiak ireki ditzatela, errealitatera itzul daitezela eta honako hiru gai hauen gainean hausnar dezatela:

Zein alternatiba etorri zait burura? Zein alternatiba aukeratu dut? Bukaeran, pozik geratu naiz?

Talde txikian (3-4 pertsonakoetan) komentatu behar da, laburpena egin eta, gero, talde handian komentatzeko.

Morales (1999) liburutik egokitua.

<p>TESTA</p> <p>“Gatazken aurrean nire estiloa”.</p> <p>(Iglesias-ek bildua; Lederach-etik egokitua)</p>	<p>cos02a06</p>
<p>Irakurri atsotitz bakoitza eta esan gatazkari erantzuten diozun modua irudikatzen duen. Erantzun honako kode honen arabera:</p> <p>1.- Ez du nire erantzuteko moduaren batere antzik. Ez du nire erantzuteko moduaren antz handirik.</p> <p>2.- Nire erantzuteko moduaren antz pixka bat du.</p> <p>3.- Nire erantzuteko moduaren nahiko antzekoa da.</p> <p>4.- Nire erantzuteko moduaren oso antzekoa da.</p> <p>5.- Nire erantzuteko moduaren oso antzekoa da.</p> <p>EA.- Ezin zaio egoera gatazkatsu bati aplikatu edo ez dakizu ongi zer esan nahi duen.</p> <p>Ez dago erantzun zuzenik, ezta okerrik ere. Atsotitz guztiak erantzun ondoren, zenbatu erantzunak taulen arabera. Punturik gehien lortzen duen estiloa da zure gustukoa. Kontua ez da gainerakoekin erkatzea. Xedea “estilo pertsonal gustukoenez” jabetzea da.</p>	

1.-	Haize eroa, doala kanpora!	1	2	3	4	5	EA
2.-	Gora irabazlea!	1	2	3	4	5	EA
3.-	Zerbait irabazten den bitartean, ez da deus ere galtzen.	1	2	3	4	5	EA
4.-	Anitz balio du indarrak, gehiago buru azkarrak.	1	2	3	4	5	EA
5.-	Bat hobe eskuan, bi haizean baino.	1	2	3	4	5	EA
6.-	Liskarrak? Utikan!	1	2	3	4	5	EA
7.-	Inoren soinuan dantza egiten dut.	1	2	3	4	5	EA
8.-	Entzun eta isil, baiezko biribil.	1	2	3	4	5	EA
9.-	Denborari egokitzea gizon zuhurrarena da.	1	2	3	4	5	EA
10.-	Gehiago dakusate lau begik bik baino.	1	2	3	4	5	EA
11.-	Ura ez baduzu edanzen, utzi joaten.	1	2	3	4	5	EA
12.-	Indarrari, indar.	1	2	3	4	5	EA
13.-	Hobe betoker itsu baino.	1	2	3	4	5	EA
14.-	Esku batek bestea garbitzen du eta biek aurpegia.	1	2	3	4	5	EA
15.-	Hobe otso eta ez ardi.	1	2	3	4	5	EA
16.-	Hobe arroza ez nahastea, itsasten bada ere.	1	2	3	4	5	EA
17.-	Uraren kontra joatea ez da gizaki zuhurrarena.	1	2	3	4	5	EA
18.-	Arrazoiei entzungor, arrazoi gutxi hor.	1	2	3	4	5	EA
19.-	Berearen eta nirearen artean beti bada tartekoa.	1	2	3	4	5	EA
20.-	Gaizki esatea baino, hobe isilik egotea.	1	2	3	4	5	EA

Batu atsotitz bakoitzari emandako puntuazioa. Zenbatu estilo bakoitzari osotara emandako puntuazioa. Punturik gehien lortzen duen estiloa da gustuko duzuna.

	Atsotitza	Zure erantzuna
LEHIATZEA	2	
	9	
	13	
	16	
	GUZTIRA	

EGOKITZEA	5	
	8	
	10	
	18	
	GUZTIRA	

SAIHESTEA	1	
	7	
	12	
	17	
	GUZTIRA	

NEGOZIATZEA/BILAKATZEA	3	
	6	
	14	
	20	
	GUZTIRA	

LANKIDETZAN ARITZEA	4	
	11	
	15	
	19	
	GUZTIRA	

HIRUGARREN SAIOA: Gatazketan gauzak ikusteko moduak

cos03a00

HELBURUAK:

- Zailtasunak bizitzea bestearen tokian jartzeko.
- Gatazketan eta gatazken konponketan eragiten duten sinesmen, aurreiritzi eta estereotipo pertsonal eta kulturalen gainean hausnartzea.
- Errealitate beraren gainean izan daitezkeen hautemateez jabetzea.
- Gatazkaren kontzeptuan sakontzea.

JARDUERAK

- "Ispilua". Hasierako dinamika, bikoteka. Bestearen tokian jartzeko zailtasuna bizitzea eta haren asmoak eta jarrerak antzematen saiatzea.
- "Mila orban eta bat gehiago". Hautematearen gainean hausnartzeko jarduera, pertsonak, estimuluen arabera, hautemateko dituzten moduez jabetzeko.
- "Nola dakusazu?". Ilusio optikoak power point diapositiben bidez aurkezturik.
- "Esadazu nola hitz egiten duzun, esanen dizut..." Taldekako jarduera, gatazkaren kontzeptuan sakontzeko eta gatazkei aurre egiteko moduaren azpian dauden sinesmen kulturalen gainean, eta haiek gure eguneroko bizitzan zenbateraino sarturik dauden jakiteko hitz egitea.
- "Rolak aldatuz". Gatazka batean ikuspuntu desberdinak esperimendatzea, gatazka baten ikusmoldeak aztertzea.
- "Begirada". Narrazio-testu bat irakurtzea eta kontakizunean agertzen diren pentsamenduaren distortsioen gaineko oharak egitea.

Ispilua	cos03a01
<p>HELBURUA: Bestearen tokian jarri eta haren asmoak, emozioak eta jarrerak antzematea</p> <p>PROZEDURA: Parez pare jarriko diren bikoteak eginen dira. Batek ekintzak egiten dituen bitartean, bere ikaskideak haren keinu guztiak doitasun handiz imitatu behar ditu, haren erritmoa, asmoa, emozioak... antzemanaz. Egoera batean pentsa dezatela eskatuko zaie (goizetan jaikitzea, lanera joatea, zinemara joatea, hiper batera erosketak egitera joatea, etxeko lan bat egitea...), hori guztia egoera animiko batez lagundurik eta bere bikotekidearen aurrean keinu bidez irudikaturik. Jarraian, rolak aldatuko dira. Jarduera bukatutik, talde handian ondokoaz hitz eginen da: zein zaila den bestearen asmoak, emozioak eta jarrerak antzematea eta aurrea hartzearen edo ekintza imitatzearen arteko aldeak hautematea.</p> <p>Morales (1999) liburutik egokitua.</p>	

Mila orban eta bat gehiago	cos03a02
<p>HELBURUA: Hausnartzea pertsonen arteko hautematearen eta aurkeztutako estimuluen arabera dauden aldean gainean.</p> <p>PROZEDURA: Sakabanaturik ezarritako orban koloredunez beteriko kartulina bat minutu erdiz aurkeztuko da. Eskatuko da parte-hartzaile bakoitzak idatz dezala paper batean gutxi gorabehera zenbat orban ikusi dituen kartulinaran. Jarraian, lauki-sare batean sartutako objektuak dituen kartulina bat erakutsiko da. Era berean, objektu horiek zenbat diren anotatzeko eskatuko da. 5 minutuz denak elkarren artean solasean hasiko dira; bakoitzak zenbat objektu anotatu dituen da kontua. Denek adostasun batera iritsi beharko dute. Kartulina atera eta zenbatetsitako kopurua eta benetakoa erkatuko dira. Hautematean izandako aldeak komentatuko dira, desadostasunak kasu batean beste batean baino gehiago izan ote diren, desadostasun horiek zergatik gertatu diren, gertatutakoa parekatu egoera berberen hautemate desberdinak ematen diren kasuekin, besteen presioaren ondorioz norberak hasieran zuen ustea aldatu ote den aztertu...</p> <p>Aldaerak: Egin daiteke kolorearekin, forma geometrikoekin, objektuen siluetekin...</p> <p>Hostie-tik (1994) egokitua</p>	

Esadazu nola hitz egiten duzun, esanen dizut...

cos03a04

HELBURUA: Gatazkaren kontzeptuan sakontzea, gatazkak konpontzeko estiloen atzean dauden sinesmenak aztertzea...

PROZEDURA: Bakoitzari esaldi eginak eta atsotitzak dituen zerrenda bat emanen zaio. Eskatuko da 4-5 pertsonako taldeek aztertzea esamolde bakoitzaren atzean zer gatazka-kontzeptu dagoen eta gatazkak konpontzeko zer estilo gelditzen den agerian. Eskatuko da esan dezatela ohikoa den, gizartean onartua denetz, gaur egun bazterturik dagoenetz... Esaldiak mota hauetakoak izaten ahal dira:

-
- **"harria bota eta eskua gorde"**
- **"bakea nahi baduzu, presta ezazu gerra"**
- **"irabazi ala hil"**
- **"denborak eman, denborak ken"**
- **"zerbait egin aurretik birritan pentsatu"**
- **"hobe gutxi izan eta kitto, ezen ez anitz eta zorrez ito"**
- **"ardo garratzak ardo gozoa garratzen"**
- **"bertutea erdian"**
- **"defentsarik onena eraso"**
- **"batek nahi ez badu, bi ez dira borrokatzen"**
- **"barkatu bai, baina ez ahaztu"**
- **"egindakoa ordainetan hartuko duzu"**
- **"ahal duena salba dadila"**
- **"hobe oker konpondu, ezen ez auzitan sartu"**
- **"oker egiteak beste hainbeste ordainetan"**
- **"mandazainak gara eta bidean eginen dugu topo"**
- **"begia begi truk"**
- **"gozo hasten dena zakar bihurtzen da"**
- **"burua lehenago nekatu behar da, besoak baino"**
- **"hitz ergelei belarriak itxi"**
- **"su txikitik su handia ateratzen da"**
- **"armak hartu aurretik beste ezertan saiatu"**

Taldeka azertu ondoren, talde handian bateratu.

Taldeetan aztertzeko esaldiak

- **“harria bota eta eskua gorde”**
- **“bakea nahi baduzu, presta ezazu gerra”**
- **“irabazi ala hil”**
- **“denborak eman, denborak ken”**
- **“zerbait egin aurretik birritan pentsatu”**
- **“hobe gutxi izan eta kitto, ezen ez anitz eta zorrez ito”**
- **“ardo garratzak ardo gozoa garratzen”**
- **“bertutea erdian”**
- **“defentsarik onena eraso”**
- **“batek nahi ez badu, bi ez dira borrokatzen”**
- **“barkatu bai, baina ez ahaztu”**
- **“egindakoa ordainetan hartuko duzu”**
- **“ahal duena salba dadila”**
- **“hobe oker konpondu, ezen ez auzitan sartu”**
- **“oker egiteak beste hainbeste ordainetan”**
- **“nekazariak gara eta bidean eginen dugu topo”**
- **“begia begi truk”**
- **“gozo hasten dena zakar bihurtzen da”**
- **“burua lehenago nekatu behar da, besoak baino”**
- **“hitz ergelei belarriak itxi”**
- **“su txikitik su handia ateratzen da”**
- **“armak hartu aurretik beste ezertan saiatu”**

Rolak aldatuz

cos03a05

HELBURUA: Bestearen tokian jartzen saiatzea.

PROZEDURA: Bikoteka jarriko dira. Bi pertsonaren arteko gatazka prestatuko da (benetakoa izan daiteke, bikotekide batek ekarria). Talde osoaren aurrean irudikatu ondoren, rolak aldatuko dira.

Parte-hartzaile guztiak gatazka beraren bi aldeak izan ondoren, honako hauei buruzko elkarrizketari ekingo zaio:

- Roletik ateratzeko eta beste aldearen ikuspuntuak eta sentimenduak aztertzeko zailtasunak.
- Gatazka ulertzea.
- Konponbideak bilatzeko aukerak, alde bakoitzaren ikusmoldetik abiatuz.

“Begirada”	cos03a06
<p>Gatazketan garrantzitsua da aldeetako bakoitzak arazoa nola hautematen duen jakitea. Askotan hautematearen eta pentsamenduaren arteko distortsioak gertatzen dira. Juan Madrid-en kontakizun honetan ereduz adierazten da nola pentsamendu distortsioek indarkeriara eraman gaitzaketen. Irakurri eta 4-5 pertsonako taldeetan erantzun galderak. Bateratzea.</p>	
<p>"Begira, ni ez naiz hain gaiztoa. Ni neu neure kontuetan aritzen naiz, dendan, eta ikusten duzunez ez da oso handia, nire seme-alabez ere arduratzen naiz, baina gazte jendea, badakizu... Gazteek beste gauza batzuk dituzte gogoan, dendaz paso egiten dute, haiek esaten duten bezala. Baduzu seme-alabarik? Jainkoak begira diezazkizula. Gazteak diren bitartean poztasun iturri dira, baina handitzen diren heinean aldaketak gertatzen dira. Hau badiotsut ederki aski dakidalako. Bai, jauna. Nire Arturok, hogeni urterekin, ez du oraindik deus ere egin. (...) Baina zergatik zu gogaitu. (...) Ez, ez jauna, ez dut denda itxiko. Zertarako? Kontua ez da ezin dudala itxi, kontua da ez dudala itxi nahi. Hemen ez da deus ere gertatu. (...) Ez naiz zakarra. Arrunta naiz, arestion esan dizut.(...) Eta ezin badut defendatu, esanen didazu bada. (...)</p> <p>Bai jauna, kontatuko dizut. Hil nituen begietara begiratu nielako. Lanik egiten ez duen baten aurpegi lotsagabe eta harroputz hori, ile luze eta zikina daraman hori... eta neska, zirtzil hutsa, utz dezagun albo batera... Besoak gurutzatu eta zahar alaen hori deitu zidan. Hori apuntea da (...)</p> <p>Ez, ez nahiz nahasten ari, kontua da ez dudala jendearekin gehiegi hitz egiten, are gutxiago poliziarekin... Barkatu, kontatuko dizut, jauna. Bederatzi eta erdiak aldera sartu ziren. Ikusi bezain agudo susmoa hartu nien. (...) Mutilak pistola atera zuen eta eztarrian jarri zidan. Mutu gelditu nintzen. Uste dut ni baino urduriago zegoela; ikaraturik zegoen, izerditan.</p> <p>“Dirua, dirua”, esan zidan. (...) Baina begietara begiratzean izan zen. Ni gerran izandakoa naiz, badakizu? Badakit zein diren hil nahi zaituztenen begiak eta mutil horrek hil nahi ninduen. Badut armak edukitzeko baimena, bai jauna, hemen duzu, baita Magnum 357-a ere. Zer? Deus ere ez, gustuko dudala. Zuri ez zaizu gustatzen, ala? Arma hau oso polita da, segurua eta bizitza salbatu nau. Baimenarekin nahi dudana izan dezaket. Ez zaitetz haserretu nirekin (...) Nola? Ez jauna, ez nintzen konturatu pistola gezurrezkoa zela. Nola jakinen nuen, bada? Jakin nuen bakarria izan zen hil nahi ninduela eta orduan tiradera ireki nuen... Begira, halaxe... eta errebolberra hantxe nuen, paper artean ezkutatua. Begietara begiratzea utzi gabe, errebolberra atera nuen. Hurbiletik tiro egin nion eta mantala eta alkandora zipriztindu zizkidan. (...)</p> <p>Azken batean, bere bizia edo nirea zegoen jokoan... Eta neska? Nik zer nekien, bada! Armaren bat izan zezakeen arropa artean, ezkutaturik; purtzil horiek hala egiten dute... Ez bat eta ez bi, buruan egin nion tiro. Seguruagoa da, zuk zeuk badakizu, ordenaren defentsore horrek.</p> <p>Ez bada, ez jauna. Ez nekien errebolberra gezurrezkoa zela, ezta hamabina urte zituztela ere. Nire Arturoren adin berekoak iruditu zitzaizkidan; esan dizut arestion. Hogeiren bat urte zituztela iruditu zitzaidan. Ez, ez zebiltzan jolasean. Ez zen jolas bat. Begietara begiratu eta konturatu nintzen hil egin nahi nindutela. Horrexegatik hil nituen. Biak ala</p>	

biak, bai jauna"
(Juan Madrid, "La Mirada")

Galderak

- 1) Kontakizun honetan zer aurreiritzi eta distortsio ageri dira?
- 2) Zer esperientzia, bizikizun eta sinesmenen ondorioz hauteman du gizonak egoera modu honetan?
- 3) Idatzi antzeko ezaugarriak dituen kontakizun bat. Kontatzaileak gertatutakoa beste ikusmolde batez deskribatuko du. Esate baterako, honako hauetako batena: lekukoa, dendariaren emaztea, kasua bere gain hartu zuen polizia, eraildako neska-mutilen gurasoak...
- 4) Idatzi ikastetxean gertaturiko antzeko gertaera baten gaineko erreportajea. Asmatu gertaeran inplikaturiko pertsonak eta alegiazko pertsona horiei galderak egin ikusmolde bat baino gehiago izateko.

Díaz-Aguado-ren (cnice) programetan Salvador Álvaro-ren jardueretatik egokitua.

LAUGARREN SAIOA: Emozioak eta sentimenduak gatazketan.	cos04a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Parte-hartzaile guztien arteko komunikazioa sustatzea eta pertsonen arteko dinamikak ezar daitezen ahalbidetzea• Emozioen gaineko ezagueran sakontzea.• Sentimenduen hizkuntza gehitzea.• Emozioak kontrolatzeko mekanismoak ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Bikoteak". Hasierako dinamika, eskuarki elkarrekin ez daudenen arteko komunikazioa sustatzeko.• "Emozioak argituz". Jarduera hau talde handian edo talde txikietan egin daiteke, gatazken azpian dauden sentimenduak eta emozioak aurkitzeko gaitasuna garatzeko.• "Emozioak". 4-5 pertsonako taldeetan egiteko jarduera, oinarrizko emozioen ezagueran eta adierazpenean sakontzeko.• "Emozioei izenak jarriz". Bikoteka egiteko jarduera, gorputz sentazioak erakusten dituzten lagunarteko esamolde batzuetan dauden emozioak identifikatzeko.• "Amorrua kontrolatzea". Testua irakurri ondoren, lana taldeka eginen da, aurkako egoeren ezagueran sakontzeko, halakoak gertaturikoan nola jokatu jakiteko eta ikastetxeko balizko esperientzietan aplikatzeko.• "Baloiz mezularia". Talde-dinamika, ahozko hizkuntzarik gabe emozioak adierazi eta ulertzen direla bizitzeko.	

Bikoteak

cos04a01

HELBURUA: Parte-hartzaile guztien arteko komunikazioa sustatzea eta taldean ohikotasunez elkarren ondoan jartzen ez direnen arteko harremanak ahalbidetzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari idatzitako hitz bat duen paper bat emanen zaio. Jarraian, denak zutitu eta taldean beren hitzaren bikotekidea duen pertsona bilatuko dute (kontrako hitza edo hitz osagarria izanen da edo...). Behin bikotekide guztiek elkar aurkitu dutenean, elkarrekin eseri eta 5 minutuz gatazken gaineko esaldi bat prestatuko dute, bi hitzak ageri diren esaldi bat hain zuzen ere. Gero, denak talde osoaren aurrean aurkeztuko dira. Gainerako jardueretarako, bere horretan mantentzen daiteke saio osoan parte-hartzaileen kokapena.

Hitz-bikoteen eredia:

GERRA	BAKEA	HITZ EGIN	ISILDU
LAGUNTASUNA	ETSAITASUNA	EMAN	HARTU
JARRI	KENDU	NIREA	ZUREA
ZURIA	BELTZA	INOZENTEA	ERRUDUNA
IREKIA	ITXIA	OLDARKORRA	BAKETSUA
SARRERA	IRTEERA	EGIA	GEZURRA
ERAIKI	SUNTSITU	ARGIA	ILUNA
LAGUNDU	SOSTENGATU	HARTU	EZ ONARTU
SENTITU	PENTSATU	OIHU EGIN	JO

Emozioak argituz	cos04a02
<p>HELBURUA: Gatazka bat ziprizzintzen duten emozioak eta sentimenduak identifikatzeko gaitasuna garatzea.</p> <p>PROZEDURA: Bikote bat taldearen erdialdera aterako da eta bikotekide batek besteari kontatuko dio bizi izan duen gatazka bat edo arazoak sortzen dizkion egoera bat. Beste bikotekideak arretaz entzunen dio. Taldeak erabaki behar du hitz egiten ari dena zer emozio transmititzen ari den.</p> <p>Aldaerak: 4 pertsonako taldeetan egin daiteke. Hala eginez gero, bi lagunek hitz egingen dute, beste biak adi dauden bitartean: identifikatu duten emozioa zein den esanen dute. Gero, rolak aldatuko dira.</p>	

Emozioak		cos04a03
<p>4-5 pertsonako taldeetan, talde bakoitzak emozio bat aztertuko du: tristezia, gorrotoa, beldurra, lotsa, zeloak, errua, poztasuna, esker ona, maitasuna... Modu adostuan honako galdera hauek erantzun behar dituzte:</p>		
Aztertutako emozioa:		
Gorputzean sentitzen den toki bat (esate baterako, beldurra urdailean...)		
Emozio horri lotutako kolore bat (esate baterako, gorria gorrotoari lotuta dago...)		
Kantu bat edo harekin lotutako musika-mota bat (esate baterako, fadoa tristeziarekin...)		
Emozioarekin zerikusia duten adjektiboak eta adberbioak (pozik, txoratzen, alai, kontent...)		
Zerikusia duen esaldi edo atsotitz bat (esate baterako, "lotsatia denak ez du ez jaten, ez edaten ere")		
Emozio hori sentitzeko aukera ematen duen egoera bat (esate baterako, ikaskide batek -lanak beti elkarrekin egiten dituzue- erabaki du egitasmo bat lehiaketara aurkeztea eta horretarako beste ikaskide bati eskatu dio laguntza, ez zuri; jelosturik zaude")		
Emozioa identifikatzeko aukera ematen duen zeinu bat (marraztu):		

Emozioei izenak jarritz

cos04a04

HELBURUA: Gorputz-sentsazioei dagozkien ohiko esamoldeen azpian dagoen emozioa identifikatzea.

PROZEDURA: Pertsona bakoitzari esaldi-zerrenda bat duen orri bat emanen zaio. Bikoteei eskatuko zaie esamolde bakoitzaren azpian zer emozio dagoen azter dezaten. Esaldiak honako hauen antzekoak izanen dira:


- "bakarrik pentsatzea bihar azterketa dudala: gehiegizkoa da, urdailean pilota egiten zait"
- "hitz egiten hasi baino lehenago dardara batean zegoen"
- "ikusten dudanean zer egiten ari zaion nire lagunari eskuak sutan jartzen zaizkit"
- "denak niri begira zeudela ikustean gorri-gorri jarri nintzen"
- "bere aitari gertatutako istripuaren berri izan zuenean, dardarka hasi zen zuhaitz hosto bat izan balitz bezala"
- "haren zoritxarraren berri izan nuenean bihotza erdibitu zitzaidan"
- "nire izena esan zutenean ematen zuen bihotza bularretik aterako zitzaidala"
- "berria jakin zuenean zuri gelditu zen, hilda dagoen baten pare"
- "haurrei esan nienean aitona-amonak ikustera joan behar genuela jauzika hasi ziren"
- "oihuka, irainka eta mehatxuka hasi zen, ero baten pare"
- "ebakuntzaren emaitzaren zain nengoan bitartean, bihotzaren taupadak oso biziak ziren"
- "bere lana hondatu zutela ikusi zuenean, oso zurbil jarri zen"
- "ahots mehe batez hitz egin zigun"
- "bere begiei sua zerien"
- "etxera itzultzean, hainbeste denboraren buruan, halako inurridura bat sumatu nuen gorputz osoan, halako arintasun bat"
- "alde batetik bestera botatzen duten pilota baten pare sentitu nintzen"
-

Bikoteka aztertu ondoren, talde handian bateratuko da.

Aztertu beharreko esaldiak

- “bakarrik pentsatzea bihar azterketa dudala: gehiegizkoa da, urdailean pilota egiten zait”
- “hitz egiten hasi baino lehenago dardara batean zegoen”
- “ikusten dudanean zer egiten ari zaion nire lagunari eskuak sutan jartzen zaizkit”
- “denak niri begira zeudela ikustean gorri-gorri jarri nintzen”
- “bere aitari gertatutako istripuaren berri izan zuenean, dardarka hasi zen zuhaitz hosto bat izan balitz bezala”
- “haren zoritxarraren berri izan nuenean bihotza erdibitu zitzaidan”
- “nire izena esan zutenean ematen zuen bihotza bularretik aterako zitzaidala”
- “berria jakin zuenean zuri gelditu zen, hilda dagoen baten pare”
- “haurrei esan nienean aitona-amonak ikustera joan behar genuela jauzika hasi ziren”
- “oihuka, irainka eta mehatxuka hasi zen, ero baten pare”
- “ebakuntzaren emaitzaren zain nengoen bitartean, bihotzaren taupadak oso biziak ziren”
- “bere lana hondatu zutela ikusi zuenean, oso zurbil jarri zen”
- “ahots mehe batez hitz egin zigun”
- “bere begiei sua zerien”
- “etxera itzultzean, hainbeste denboraren buruan, halako inurridura bat sumatu nuen gorputz osoan, halako arintasun bat”
- “alde batetik bestera botatzen duten pilota baten pare sentitu nintzen”

Amorrua kontrolatzea	cos04a05
Irakurri testu hau. Egin 3 pertsonako taldeak. Gero, testuaren iruzkina egin eta hezkuntza arloko benetako bi egoera aukeratu proposatutako estrategiak haietan ezartzeko.	
<p>Costak eta López-ek (1996) Allairek eta Mc Neill-ek garatutako Etsaitasunaren Kurba erabili dute aurkako portaerei aurre egiterakoan portaera egokiak zein diren erakusteko.</p> <p>Pertsonen arteko harremanetan, oro har, eta hezitzaileen, haurren eta gazteen, familiakoen edo hezkuntza elkarteko kideen arteko pertsona arteko harremanetan maiz emoziozko erreakzioak agertzen dira. Haserrea, narritadura edo etsaitasun agerikoa nabarmenak dira. Ezusteko baten ondorioz edozein aldaketa "modu txarrean" eskatzen duen pertsona, "bere onetik aterata" dagoena edo "zakar erantzuten duena", tamalez, arrunta da hezitzaileen hezkuntza-lanean. Hezitzailearen helburua bada "amuari ez lotzea" eta eztabaidan ez sartzea, bere emozioak kontrolatu beharko ditu, etsaitasunaren kurbako aldiak ezagutu beharko ditu eta eztabaidari aurre egiteko zer egin behar duen eta zer ez duen egin behar jakin beharko du.</p> <p>Etsaitasunezko edo haserrezko erreakzioa emozioak aktibatzen dituen patroi jakin baten ondorioa da. Patroi hau egoki erabili behar da "bere onetik aterata dagoena" berriz bideratzeko "emozio-egoera" arrazoizko batera.</p> <p>Aldi horiek honako hauek dira (ikus irudia):</p> <ol style="list-style-type: none">1. Zentzuzko aldia: jende gehiena "zentzuzkoa" izan ohi da denbora luzez, hau da, edozein arazoren gainean eztabaidatzeko emozio-maila egokia izaten du.2. "Abiatze" edo "irteera" aldia: jendea abiatzen da, emozioak askatzen ditu eta zakarra eta gogorra ere izatera irits daiteke. Ez da arrazoitzen ahalegindu behar, egokiena entzutea da.3. Moteltze aldia: jendea ez da "beti bere onetik" aterata egoten. Ez bada gero haserrearazten, erreakzio suminduak "pot egiten du".4. Aurre egiteko aldia: une honetan parte hartzen has daiteke, zerbait esanez. Esandakoaren arabera izanen da ondorioa. Emozio-egoera enpatizatu eta onartzeak (epaitu gabe), "gorrotoa itzaltzeko" eta lasaitasuna izateko lagungarria izaten ahal da.5. Hozte aldia: pertsonak bere sentimendua onartu diotela ikusten badu, lasaituko da.6. Arazoa konpontzeko aldia: pertsona zentzuzko egoerara itzultzen denean arazoari aurre egiten ahal zaio.	



1 Nivel Racional	1 Arrazoizko maila
2 Salida	2 Irteera
3 Enlentecimiento	3 Moteltzea
4 Conducta de Afrontamiento	4 Aurre egiteko jokabidea
5 Enfriamiento	5 Hoztea
6 Solución de problemas	6 Arazoak konpontzea

ZER EGIN	ZER EZ EGIN
Bere narritadura onartzea eta haren egoera ulertzen dela ikusaraztea.	Narritadura ez onartzea edo lasaitzen saiatzea.
Arretaz entzutea. Erantzun baino lehenago, utzi pertsonari esan nahi duena esaten.	Entzutera ukatzea.
Jarrera irekia izatea gaizki dagoenaren eta egin beharrekoaren gainean.	Erakundea edo norbera defendatzea arazoa argitzen saiatu baino lehenago.
Ahal bada, pertsona gune pribatu batera gonbidatzea.	Norgehiagoka toki publiko batean jarraitzea.
Pertsonarekin esertzea lasai hitz egin ahal izateko.	Zutik egotea esertzeko tokiak egonik.
Ahotsa eztea izatea eta bolumena jaistea.	Ahotsaren bolumena goratzea "entzuna izateko"
Norberak bere iritzia gordetzea pertsona minduak "egin beharko lukeenaren" eta "egin beharko ez lukeenaren" gainean.	Pertsona minduak "egin beharko lukeenaren" eta "egin beharko ez lukeenaren" gaineko ondorioetara pasatzea.
Pertsona laguntzea egoerari aurre egin diezaion, haren portaera txarra sumatzen denean.	Pertsona lotsaraztea haren portaera txarra dela-eta.
Pertsona minduarekin enpatizatzea harekin ados egon gabe, betiere lasaitu denean.	Beste modu batean jokatzek dituen abantailen gaineko argudioak eta arazoak ematea.

Gorabeheraren ondoren sentimenduak adieraztea, eta hurrengoetan beste modu batean jokatzeko eskatzea.	Gorabeheraren ondoren sentimenduak ezkutatzeta.
Beste bati laguntza eskatzea egoera honi aurre egiteko modurik ez dagoela ikusten denean.	Saiatzen jarraitzea, konturatu arren norberaren egoerari aurre egiteko oso abila ez dela.
Aztertzea ikastetxean benetan gertaturiko egoerak eta amorrua kontrolatzeko balizko estrategiak:	
1. egoera	Estrategiak:
2. egoera	Estrategiak:

Baloi mezularia	cos04a06
<p>HELBURUA: Emozioak adierazi eta ulertzea ahozkoa ez den hizkuntzaren bidez.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Erdian baloi bat utziko da. Taldekide batek beste taldekide bati mezua bidali nahi badi, baloia hartu eta emozioz "zamatuko" du ahozkoa ez den hizkuntza erabiliz (laxtanduko du, joko du, jakin-minaz begiratuko du...) eta, jarraian, mezua bidali nahi dionari emanen dio. Baloia hartu duenak berriro "zamatuko" du, eta erantzunen dio edo beste taldekide bati beste mezu bat bidaliko dio. Norbaitek ez badu inolako mezurik bidali nahi, erdian utziko du baloia beste norbaitek har dezan. 5-6 trukeren buruan, joko eten eta balorazio xume bat egingen da. Mezu sorta bigarrenez egingen da.</p> <p>Bigarren truke sortaren ondoren, ahozkoak ez diren adierazpenak ulertu diren edo bizi izandako sentsazioak zein diren hitz egingen</p>	

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

da.

Hostietik (1994) egokitua

BOSGARREN SAIOA: Gatazkek nola egiten duten "gora".	cos05a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Norberaren eta gainerako taldekideen ezagutzan sakontzea.• Eguneroko gatazka egoeren gaineko hausnarketa eta azterketa garatzea.• Bat ez-etortze bat gatazka bihurtzen duten prozesuak aztertzea.• Gatazken dinamikak ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren...". Hasierako jarduera, autoezagutza eta parte-hartzaileen arteko ezagutza garatzeko.• "Adierazpenarekin jolastuz". Talde-dinamika, osagai paralinguistikoek mezuen esanahiak nola aldatzen dituzten esperimenteratzeko.• "Gatazka sortuz". Egoerak bizitzeko jarduera (egoera horietan gatazkek "handitzen" dira), eta hartara eramaten duten faktoreen gaineko hausnarketa.• "Enkantea". Gatazkan "harrapatua" izatearen sentipena bizitzea. Hasierako hautemate eta posizioei zaien "atxikimendu irrazionala" esperimenteratzea.• "Gatazkaren dinamika". Testua irakurri ondoren, talde txikian aztertzea.• "Irainen aurreko erreakzioa". Talde-dinamika, irainen eta min egiten duten esaldien ahalmen erasokorra arintzeko.	

Irudikatu zer naizen, irudikatu zer zaren...

cos05a01

HELBURUA: Taldekide guztien ezagutza sakontzea eta pertsonaren alderdiak hautematen ikastea, umorez eta irudimenez, eta denen ekarpenak onartzea.

PROZEDURA: Bakoitzari galdera-sorta bat emanen zaio osatu beharreko esaldi hauekin edo antzekoekin:

- animalia bat bazina, ... izanen zinateke
- jaki bat bazina, ... izanen zinateke
- zuhaitz bat bazina, ... izanen zinateke
- kolore bat bazina, ... izanen zinateke
- musika-tresna bat bazina, ... izanen zinateke
- ipuin bateko pertsonaia bat bazina, ... zinateke
- objektu bat bazina, ... izanen zinateke
- lore bat bazina, ... izanen zinateke
-

Bakoitzak bere galdera-sorta bete ondoren, 4-5 pertsonako taldeak egin eta zirkulutan jarriko dira. Zirkulu bakoitzaren barnean, pertsonak iritziak trukatu dituzte, esate baterako, jakiteko pertsona bakoitzak bere burua nolakotzat duen eta pertsona bakoitzak taldeko gainerako kideak nolakotzat dituen, betiere galdera-sortan proposatutakoari dagokionez. Azaldu behar da zer dela-eta dagoen iritzi hori. Denek hitz egin ondoren, pertsona bakoitzak bizpahiru puntu hautatu behar ditu, gainerakoek esandakoa eta berak esandakoa bilduz, eta talde osoari horren berri eman behar dio.

Adierazpenarekin jolasean

cos05a02

HELBURUA: Behatzea, mezu baten esanahia ematen dutenak hitz soilak baino elementu gehiago direla: intonazioa, keinuak, ahotsa, gorputzaren mugimenduak.

PROZEDURA: 5-6 pertsonako taldeak egingen dira. Abiapuntua esaldi neutro bat izanen da ("bihar ikastaro batera joanen gara"; "atzo itzuli ziren bidaiatik 2. ikasmilakoak"; "astelehenean bukatuko dira klaseak"...). Esaldi horiek sentimendu batez zaturik esan beharko dira: poztasuna, asperdura, beldurra, tristura, itxaropena, amorrua... Guztiek adierazpen horiek landu ondoren, talde handiaren aurrean irudikatzeko modu bat erabakiko dute. Esaldi horiei eman dieten zentzua eta sentimendua antzeman beharko dute gainerako parte-hartzaileek.

Gatazka sortuz

cos05a03

HELBURUA: Gatazken ganean eta gatazkek "nola egiten duten gora" hausnartzea.

PROZEDURA: 3-4 pertsonako alde bakoitzari proposatuko zaio pertsonen arteko harremanen egoera neutro bat. Taldeak egoera gatazka bihurtu eta gainerako kideen aurrean irudikatu behar du. Bana daitezkeen egoerak:

- "erosketak supermerkatu batean egiten"
- "irakasleak egutegiko aldaketa bat eztabaidatzen"
- "auto-gidariak biribilgune batean"
- "irakasleak: jardunaldi pedagogiko batera denek joan nahi eta denendako toki bat besterik ez"
- "ilaran antzezlan bat ikusteko sarrera hartzen"
- "lanera autoan elkarrekin joatea erabaki duten pertsonak: erabakiak eta puntualtasuna"

Egoera gatazkatsuak taldearen aurrean irudikatu eta aztertuko dira: nola hasi diren, zer aztarna ikusi diren, inplikaturakoek zer behar eta interes dituzten, zer emozio gelditu diren agerian, soluziorik izan den edo ez.

Enkantea

cos05a04

HELBURUA: Gatazkan harrapatua izatearen egoera bizitzea. Aztertzea nola gatazkek gora egiten duten hasierako hautemate eta ikuspuntuei izaten zaien "atxikimendu irrazionalagatik".

PROZEDURA: Dinamizatzaileak azalduko du euro 1eko txanpon bat jarriko dela enkantean; txanpona erakutsiko du. Denek egin dezakete eskaintza handiagoa, baina horretarako baldintza hauxe da: eskaintza handiena egiten duenak billetea eramanen du eskainitakoa ordainduz, eta eskaintza handienetan bigarrena egin duenak ere ordaindu beharko du, baina ordainetan deus ere eraman gabe.

Enkantea ohi den moduan egiten bada, azkenean bi parte-hartzailek soilik jarraituko dute eskaintzak egiten eta jasoko duten baino diru gehiago eskainiko dute. Une honetan enkantea gelditu eta elkarrizketari emanen zaio hasiera.

- Zer uzten du agerian jarduera honek?
- Zer hautematek eta/edo sentimenduk bidera gaitzakete jokabide irrazional bat izatera?
- Gatazka egoerei aplikatzeko modukoa da? Nola?
- Nola atera "irabazi nahi" posiziotik?

M. Shubik-ek diseinaturiko jokoa

Gatazkaren dinamika	cos05a05
Irakurri testua eta bukaerako galderak 3-4 pertsonako taldeetan erantzun.	
<p>Egile gehienek –hala dakar R. Alzate-k (1998)– gatazketan hiru une edo "egintza" bereizten dituzte:</p> <p>1) <u>Areagotzea edo gora egitea</u></p> <p>Gatazka bat ez bada hasieran behar bezala lantzen, "gora egiteko" joera du eta zenbait eraldaketa inkremental gertatzen dira, eta horrek gatazka areagotu egiten du. Eraldaketa inkremental hauetako batzuk ondoko hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Estrategiak gogortzea nahi den hori lortzeko: agintzetatik mehatxuetara pasatzen da, limurtzen saiatzetik bortxatzerara... ➤ Hasierako arazoari beste gai batzuk gehitzen zaizkio: gasolina-depositua nork bete behar duen eztabaidatzen hasi eta etxeko lanak banatzeari buruzko beste gai batzuk nahasiz bukatzen da ➤ Berariazko arazoaren ondoren arazo generikoak etortzen dira eta horrek aldean arteko harremana kaltetzen du. Bestearenganako tolerantziarik eza garatzen da. Jokabidetik pertsonarengana pasatzen da. Pertsona "arazotzat" hartzen da. ➤ Eraldaketa motibazionala gertatzen da: hasieran orientazioa banakakoa izaten da, norberak bere interesak bilatzen dituenarena. Gatazka areagotzen bada, orientazioa lehia bihurtzen da. Bestea garaitu behar da eta ardura besteari kaltea egitea izanen da, helburuak lor ez ditzan ahalegintzea, norberak onurarik lortzen ez badu ere. ➤ Inplikaturako pertsonen kopurua handitzen da; helburuak lortzeko aldeek ezintasuna dutenean, aldekoen edo hurbileko pertsonen laguntza bilatzen hasten dira <p>Gatazkaren "polarizazio" hau 3 prozesu psikologiko hauen bidez azaltzen da:</p> <ol style="list-style-type: none"> a) <i>hautemate selektiboa</i>: gatazka bat areagotzen denean, jendeak aurkariarengan ikusi nahi duen hori "hautatu" egiten du eta gainerako informazioa alde batera uzten du. Beste horren gaineko informazioa, hots, gure hipotesia laguntzen duena, haren izateko moduaren ondoriozko zergatiei lotzen zaie, eta gure hipotesiekin bat egiten ez duen informazio hori egoeraren ondorio diren zergatiei lotzen zaie. b) <i>iragarpen autobetea</i> egoeraren definizio faltsua da, eta jokabide berri bat erakusten du, jatorriz faltsua den kontzeptzioa errealitate bihurtzen duena. 1968an Rosenthalek eta Jacobsonen <i>Pigmalion efektuaren edo iragarpen autobetearen</i> gaineko ikerketa egin zuten. Eskola batean adimen test bat egin zuten eta, ausaz, ikasleen %20 hautatu eta esan zieten haien adimen koefizientea (AK) gainerako haurrena baino handiagoa zela. Ikasturtearen bukaeran, berriz egin ziren probak eta frogaturik gelditu zen adimentsuagotzat hartutako taldeak lau puntu hobetu zuela AK. Irakasleekin izandako elkarrizketetan ikasle horiek honelaxe 	

deskribatu zituzten: gaitasun eta jakin-min handiagoa dute, bizitzan arrakasta lortzeko aukera gehiago dituzte, eta erakargarriagoak, hobeki egokituak eta amultsuagoak dira.

- c) *engainatzea eta aurretiko konpromisoekiko gehiegizko atxikimendua*. Pertsonak joera dute bestearen eta eztabaidan den gaiaren gaineko ikuspuntu batean itxi eta hari lotzeko modu muturrekoan eta maiz irrazionalean. Adibideak: dolarraren enkantea, aurretik ordaindutako oporrak, milioi askoko inbertsioa hegazkin batean...

2) Geldialdia edo klimaxa

Gora jotzeko prozesuko une jakin batean, gatazkak intentsitate-une gorena lortzen du eta handik aurrera zaila da gauzak okerragora egitea. Gauzak soilik mantendu edo hobetu daitezke. Rubin, Pruitt eta Kim-ek (1994) uste dute geldialdia 4 arrazoik eragin dezaketela:

- taktika lehiakorren porrotak: eraginkortasuna galtzen dute
- beharrezkoak diren baliabideak ahitzeak: energia, denbora, dirua...
- gizarte laguntza galtzea
- kostuak onargarriak ez izatea: kostua osoa altua da eta saihestu behar da

"Aurpegia salbatzeko" mekanismoa dago eta aldeetako batek ulertu behar du kontzesioak egin behar direla, ez dago prest aldaketak egiten lehena izateko. Horrek guztiak geldialdira garamatza eta horrek irauten du aldeetako batek edo hirugarren batek mekanismo hori desaktibatu arte.

3) Baretzea

Aldeak konturatu dira muga onartezin batera iritsi direla. Bi aldeek elkarren beharra dute arazoaren soluzioan aurrera egiteko.

Desblokeoa errazteko alde batek, bi aldeek edo hirugarren alde batek abiatu ditzaketen estrategiak badaude:

- harremana eta komunikazioa handitzea (leherketa arriskua), beharrezkoa da komunikaziorako trebetasunak garatzea: entzute aktiboa, lerro artean irakurtzea, mezu argiak ematea...
- uneak eraikitzea (Rubin 1993), gatazka gehienetan arazo asko dago, hasi konpontzen errazak direnetatik, errazago maneiatzen direnetatik
- sartu bi aldeendako komunak diren helburuak, bakarka lortu ezin diren xedeak
- banakako adiskidetze-ekimenak: alde aurretik iragarritakoak, azaldutakoak, argiak eta erraz egiaztatzeak, denbora batez jarraitu behar dute besteak elkarrekikotasunez erantzuten ez baditu ere

Galderak:

1. Taldeko kideren batek bizi izan duen gatazka jakin batean gertaturiko eraldaketa inkrementalak deskribatu.

2. Aztertu bizi izandako gatazka batean areagotze fase batzuen ondoren zergatik gertatu den geldialdia.

3. Gatazka bat "baretzeko" eraginkorrak diren estrategiak proposatu, bizi izandako esperientzia arrakastatsuak aipatu.

4. Irudikatu ikastetxeko gatazkek aztertu eta ebazteko talderako protokolo batek egoki nola azter dezakeen zein unetan dagoen gatazka bat eta hura konpontzen laguntzeko zer ekintza egin daitekeen.

HELBURUA: Egoera bat bizi, zeinetan esaldi iraingarriek edo mingarriek balioa galtzen duten eta modu negatiboan erantzuna ematera behartzen ez gaituzten.

PROZEDURA: Parte-hartzaile adina txartel prestatu behar da, gutxienez. Txartel bakoitzean iritzia negatiboa, kritika ezereztailea, eraso oldarkorra, irain mingarria... duen esaldi bat idatziko da. Txartelak lurrean utziko dira, mezua agerian. Parte-hartzaileek, ibilian, isilik irakurriko dituzte. Denak irakurri ondoren, bakoitzak gogaikarrien gertatzen zaiona edo bere errealitatetik hurbilen dagoena aukeratuko du. Mezua hautaturik, ibilian segituko dute esaldia esanez, animatzailearen jarraibideen arabera. Animatzaileak aginduak emanen ditu: ahots apalez, apalago, xuxurlatuz, silabatan zatikatuz, azkarrago, are azkarrago, ahots sendoz, oso ahots sendoz, oihuka, berriro ahapeka..., haur txiki batek bezala, saltzaile batek bezala, tren geltoki bateko bozgorailu batek bezala, jeneral batek bezala, mozkor batek bezala..., bukatuz norberaren ahotsarekin, oso-osoa apal, eta azkenean isilduz. Ariketa egin ondoren, denak eseri eta ariketak norberarengan izan duen eraginaz hitz eginen da, hitzek nola galdu duen esanahi erasotzailea ikusi.

Txarteletan jar daitezkeen esaldiak:

- "oso zabarra zara, ez dakizu gauzei lehentasuna ematen"
- "gauzak nahiko gaizki irten zaizkizu"
- "kosta ahala kosta zure iritzia inposatu nahi duzu, oso menderatzailea zara"
- "ez zara zure konpromisoei eusteko gai"
- "ez zenuke horrenbeste haserretu beharko, sutan jartzen zara"
- "egia esan, ergela dirudizu"
- "ez dituzu gertaerak onartzen eta halaxe zabilta"
- "zergatik zara hain berekoia?"
- "taldean oztopo bat besterik ez zara"
- "zein ezkorra zaren! beti gauza ezkorrak ikusten dituzu"
- "barregarri gelditu zara jende guztiaren aurrean"
- "lerdo batek bakarrik izanen luke ideia hori"
- "taldeko lanari ihes egiten diozu"
- "lekuz kanpo dauden iruzkin horiekin dena izorratu duzu"
- "zer dela-eta egiten dituzu gauzak beti oker?"
-

SEIGARREN SAIOA: Gatazkak konpontzea.

cos06a00

HELBURUAK:

- Lankidetzarako egoerak bizitzea arazo bat konpontzeko.
- Gatazkak konpontzeko estrategiak ezagutzea.
- Gatazkak era baketsuan konpontzea modu baikorren baloratzea.

JARDUERAK

- "Puzzle kolektiboa". Talde-lankidetzarako hasierako jarduera.
- "Gatazkak nola konpondu". Testua taldeetan irakurri ondoren, benetako kasu bat edo materialean ekarritakoak konpontzeko proposatutako prozedura ezarri.
- "Xekearen herentzia". Aztertu bikoteka kontakizunean agertutako gatazkak konpontzeko estrategiak.
- "Gatazkak era baketsuan konpontzearen balioak". Gatazkak era baketsuan konpontzeak duen garrantziaren gainean hausnarketa egiteko eta adostasuna lortzeko jarduera.
- "Gatazka baten aurrean, zer egin?" Gatazkak konpontzeko praktika onen dekalogoia diseinatzeko jarduera gidatua.

Puzzle kolektiboa

cos06a01

HELBURUA: Lankidetzaren behar duen egoera bat bizitzea egoera hori konpondu arte. Ahozkoa ez den komunikaziorako aukerak esperimentatzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaileak 6 pertsonako taldeetan banatuko dira. Talde bakoitzerako poster edo irudi handi bat prestatuko da. Posterra 6 zatitan banatuko da eta 6 zatietako bakoitzetik 8 zatiko banakako "minipuzzle" bat aterako da. 8 zati horiek gutun-azal batean sartuko dira, gutun-azal bateko zati bat beste gutun-azal bateko zati batekin aldez aurretik aldatuz. Talde bakoitzari 6 gutun-azalak banatuko zaizkio eta esanzen zaio puzzle bakoitza bakarka eta isiltasun osoan egin behar dela. Ezin da hitz egin.

Talde bakoitzean egoera bat baino gehiago gertatuko da, harik eta falta den zatia beste batek duela eta bat sobran duela konturatu arte. Zatiak trukatu direnean eta 6 zatiak eskutan daudenean, osatzea eskatuko zaie poster osoa egin arte.

Posterrak bukatu ondoren, elkarrizketari ekingo zaio:

- Nola sentitu zarete puzzlea egitean?
- Zer egoera gertatu da zuen taldean?
- Nola lortu duzue lankidetzaren aritzea?
- Azkar utzi duzue alde batera norberaren interesa taldearena hartzeko?
- Zuen ustez, gatazka egoeretan erraz lortzen dira lankidetzaren jarrerak?

GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURA	cos06a02
<p>4-5 pertsonako taldeetan aukeratu ikastetxeko gatazka bat, eta "Gatazkak konpontzeko prozedura" hau ezarriz, gatazka konpontzeko moduak diseinatu. Benetako gatazkarik ez badago, dokumentu honen bukaeran proposatutako en artetik bat aukeratu.</p>	
<p>1. Berrikusi konpontzeko nahia. Faktore nagusi bat da: konpontzeko borondatea izatea eta beste batzuei laguntza ematea borondate hori izan dezaten, erronka handia da. Zerk eragozten du konpontzeko nahia izatea?</p> <ul style="list-style-type: none">• amodio propioa/urguilua• haserrea/erresumina• mina/mendeku beharra• arrazoa norberak duela uste osoa izatea/bestea okerturik dago <p>Gatazkak segitzeagatik bigarren mailako irabaziak izan daitezke.</p> <p><i>Baliabideak: entzute aktiboa, autobehaketari laguntzea, azterketa, nahigabeko erreakzioak esploratzea...</i></p> <p>2. Gatazkaren mapa egitea. Mapak balio behar du informazio berria, baterako puntuak edo baterako ikuspegia lortzeko. Osagai guztiak identifikatzea:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bakoitzaren hautemateak aztertzea, sentimenduak ateratzea...• "Muina" deskribatzea: posizioetatik behar edo interesetara igarotzea.• Beldurrak aurkitzea: kezkek, antsietateak, alde bakoitzaren ezinegonak (lotsa, segurtasunik eza, bakardadea, galera, epaitua izatea, mespretxua izatea...)• Jarreraren ondorioen gainean hausnar egitea. <p><i>Baliabideak: enpatizatzea, entzute aktiboa, elkarrizketa, hausnartzen laguntzea, ondorioak ikustea...</i></p> <p>3. Helburuak ezartzea eta haien garrantziaren arabera ordenatzea.</p> <ul style="list-style-type: none">• Lortu nahi diren helburuen gainean hausnar egitea• Pertsona arazotik bereiztea, "sendo arazoarekin, pertsona ondratuz"• Lankidetzarako estilo bat edo gutxienez konpromisorako estilo bat ezartzea. Bi aldeendako onurak bilatzea.• Aldeko giroa sortzea, ahal den neurrian. <p><i>Baliabideak: entzute aktiboa, saihestu "ostra-itxizaleak" (komunikazioa blokeatzen dutenak)...</i></p> <p>4. Aukerak sortzea: izan daitezkeen soluzioen gainean hausnartzea. Inplikaturako pertsonendako izan ditzaketen ondorio baikorrak eta ezkorrak baloratzea. Soluzio praktikoak bilatzea.</p>	

- Galdera irekiak planteatzea... "zer egin dezakegu? zer bururutzen zaizu?", prozesu honetan inplikaturako guztiak inplikatzea.
- Ez epaitu aurkeztutako alternatibak, ideia guztiak kontuan hartu.
- Sormena eta kopurua lagundu eta indartzea. Alternatibak konbinatzen laguntzea.
- Estrategien gainean hausnartzea eta bakoitzak zer ondorio baikor eta ezkor izan ditzakeen aurreratzea.
- Arazoa erabiltzen errazagoak diren zatietan banatzea.

Baliabideak: sormena, ideia-zaparrada, konfiantza ematea, aztertzea...

5. Soluziorik egokiena aukeratzea eta hori aurrera eramateko moduz hausnartzea: jarduera plan bat prestatzea sor daitezkeen arazoak kontuan hartuz.

- Soluzioen eta haien konbinazioen abantailak eta desabantailak.
- Adierazi diren iradokizunak eta aukerak ebaluatu behar dira, soluzio bat baloratu behar da:
 - egingarria da?
 - nahikoa da?
 - justua da?
- Interes eta behar nagusiek eta zerrendak zer jasan duten aztertzea
- Zer gertatu da "norberaren irudiarekin"? "Galdu izanaren" irudipena dago?
- Erabili "erabaki partziala"

Baliabideak: ebaluatzea, ondorioak aurrez ikustea... faserik zailena da, "prozesua buxatzen bada", itzuli aurreko fasera

6. Aukeratutako soluzioa praktikara eramatea.

- ZER egingen da, zein dira egitekoak?
- NORK egingen du, nork egingen du zer?
- NOLA egingen da?
- NOIZ egingen da, noiz bukatu behar da egiteko bakoitza?
- noiz gainbegiratuko dira?

7. Lortutako emaitzak baloratzea. Modu errealista batean interpretatzea lortu dena eta emaitzak lortutakoak ez badira, prozedura berriz abian jartzea.

- Gatazka konpontzen ari gara edo zerbait aldatu behar dugu?

M. J. Díaz-Aguado-ren (cnice) eta H. Cornelius-en eta S. Faire-ren *Tú ganas, yo gano, cómo resolver conflictos creativamente* liburutik egokitua.

1. KASUA: LOURDES ETA TUTOREA

GATAZKA EGOERA

2. mailako mutil talde bat joan da hitz egitera Karlosengana, Hizkuntzako irakasle den Lourdesek zigortu dituelako. Karlosek esan die Lourdesekin hitz eginen duela eta zer gertatu den jakiten ahaleginduko dela. Mutilek uste izan dute tutoreak errieta eginen ziola Lourdesi. Kafea hartzeko tenorean, Karlosek Lourdes ikusi du egongelan, eta harengana hurbildu eta zuzenean galdetu dio:

- Zer gertatzen da nire ikastaldearekin?

Lourdesek berehala erantzun dio:

- Besterik ez nuen behar!, bat aski ez, tori bi! Klase izugarria izan eta orain, zu ere zure taldetxoarekin... Hobe zenuke errespetuaren gaia gehiago landu tutoretzan eta ez horrenbeste eman arrazoia gaztetxo horiei. Galbidera daramatzazu. Ez dute burubide onik nire irakasgaien.

KARLOS

Hiru ikasle hurbildu zaizkio, Lourdesek, Hizkuntzako irakasleak, zigortu dituenak alegia. Esan diote Lourdesek ezinikusia diela eta soilik beraiei egiten dietela errieta. Kafearen tenorean Karlosek Lourdes ikusi du egongelan eta harengana hurbildu da ikasle horiekin zer gertatzen den jakin nahian. Lourdesek zakar erantzun eta irain bat bota dio. Karlos zur eta lur gelditu da eta ez dio erantzun. Hala ere, uste du honek ez lukeela horrela gelditu behar. Gustuko du ikasleekin ongi moldatzea eta uste du zigortu aurretik haiekin hitz egin behar dela.

LOURDES

Urko eta bere laguntxoaren taldeaz kokoteraino dago. Ahozko hizkuntza (azalpenak, eztabaidak...) lantzen saiatzen den oro, errieta egin behar izaten die, ez baitira isiltzen eta ikaskideei arreta galarazten baitiete, bereziki gaztelania-maila txukuna ez duten bi ikaskideri. Atzo, jolasgaraiaren zati batean lanean utzi zituen, lana buka zezaten. Ozpinduta zegoen eta ez zuen gehiago hitz egin haiekin. Kafe hartzera jaitsi zenean, ikasle horien tutorea hurbildu zitzaion; nonbait, "zigorrarekin" kexuka joan zitzaizkion. Ez zuen besterik behar. Lourdesek uste izan du tutoreak jaramon handiegia egiten diela klasea izorratzen ari den ikasle horiei. Pikutara bidali du. Lourdesek zer nahi duen, gelan lasai lan egin, errespetu handiagoz eta lau "xelebre"ri behin eta berriz errieta egiten denborarik ez galdu. Horrela jarraituz gero, ez ditu aprobatuko ez baitakite entzuten... Era berean, beldur da ez ote zaion ikastalde osoa neurri gabe nahasiko eta ez ote duen jakinen taldea bideratzen. Tutoreak gaian parte hartzea nahi luke, baina inolaz ere ez haiei aurpegia ateratzeko.

2. KASUA: IRAKASLEA ETA DEPARTAMENTUKO BURUA

GATAZKA EGOERA

Hizkuntzako departamentuaren bileran, departamentuko burua den Anak 2. ebaluazioaren emaitzak azaldu ditu eta, jarraian, azpimarratu 4. mailako C taldekoen gaitasuen emaitzak aurrez ikusitako helburuetatik behera daudela eta programazioko eduki osoak ez direla irakatsi. Mikel da talde horren tutorea. Hori dela-eta, "desadostasun" bat ireki da. Anak azpimarratu du departamentuko "desadostasun" bakarra dela eta behin eta berriz gertatzen ari den zerbait dela (1. ebaluazioan ere berdin gertatu zen). Hitz-erdika esan du egoera hori zuzentzeko neurriak hartu behar zituela Mikelek, ikastaldearen irakasle eta tutore baita, eta ustez ez duela halakorik egin. Mikelek oihuka erantzun dio esanez berari egokitu zaizkiola lanik eta ikastalderik gaiztoenak, bitartekoa baita, eta, aldi berean, departamentuko buruak direlako, ederki bizi direla beste batzuk, gehiago kobratuz eta gainerakoak deskalifikatuz. Jarraitu du esanez bere ardura dela ikastetxeko aldizkaria koordinatzea eta hori guztia ezin dezakeela egin horretarako ematen zaion zaintza orduan. Anak lehor erantzun dio berak bere lana egiten duela, atsegin duena eta atsegin ez duena, eta berak ere berdin egin beharko lukeela, irakaslanean eta tutoretzan ordu gehiago sartuz eta aldizkarian ordu gutxiago sartuz. Mikel zutitu da eta bilera utzi du.

Anak eta Mikelek ez diote gehiago elkarri hitzik ere egin. Jarraian, Mikelek Zuzendaritzan idazki bat aurkeztu du uko eginez aldizkariaren ardurari. Departamentuko giroa pozoitu da eta departamentuko kideendako ez da egoera samurra.

Zuzendaritza bitartekari arituko da.

MIKEL

Irakasle bitartekoa da eta 5 ikasturte darama ikastetxean. DBHko 3. eta 4. mailan irakasten du Hizkuntza eta 4. mailako C taldeko tutorea da. Aurten ikastetxeko aldizkaria koordinatzeko ardura hartu du, zaintzako ordu bat kentzearen alde. Aldizkaria koordinatzeko lana beti egin izan du Hizkuntza Departamentuko irakasle batek.

Mikel sormen handikoa da eta aldizkaria egiten duen neska-mutilen taldearekin gozatzen du: testuak hautatu eta maketatzen ditu, gai interesgarriak bilatzen ditu... Eta hori lan handia da eta arratsaldeetan orduak sartzen ditu horretan. Horrek guztiak tirabirak sortzen dizkio bere emaztearekin, euren alaben ardura osoa hartu behar duelako emazteak. Departamentuko gainerako kideek ez dute gehiegi babestu, ezpada artikuluren bat eskaini dion irakasleren batek... Departamentura iristen azkena izan da Mikel eta gainerakoak behin betiko destinoa duten funtzionarioak dira. Bere tutoretza taldean (4.C) ikasle asko dago; 29, guztira. Oro har, ez da erraza eskola ematea eta bereziki zaila Hizkuntza (batxilergoa ikasteko asmorik izan ez eta erdi mailako zikloak ikasi nahi dituzten neska-mutilak dira). Horretaz gainera, askok arazo pertsonalak, familiakoak eta ikastekoak dituzte. Maiz mintzatu da haiekin eta haien familiekin, baina emaitzak kaskarrak dira eta ikasturteak aurrera egin ahala gero eta zailagoa da klase ematea eta gero eta diziplina arazo gehiago dago.

Departamentuko bileran, Anak gogor jo du bere kontra eta denen jomugan jarri du.

Mikeli min handia egin diote eta bere lankideen aurrean bere izen ona galarazia ikusi du. Hori dela-eta, bere burua babesten saiatu da. Uste du behin betiko destinoa duten irakasle batzuk baino lan handiagoa egiten ari dela eta bere lana ez dutela preziatzen. Profesionaltasun lezioak emanaz Anak erantzun dionean, mahaitik zutitu da eta bileratik alde egin du. Aldizkaria ez bazaizue axola, utzi eta beste batek egingen du. Aldizkaria koordinatzeari utziko diola zuzendariari esan dionean, onartu egiten du egoera ez dela inorendako atsegina eta bideratzen ahalegindu behar dela.

ANA

Hizkuntza departamentuko burua da. 4.C ikastaldeko zenbait adierazle direla-eta kezkatu dago, emaitza txarrak errepikatzen direlako eta uste duelako ez zela neurririk hartu lehen hilabetean berean, ikastaldeak arazoak izan zitezakeela ikusi zenean hain zuzen ere.

Uste du Mikel tutoreak denbora gehiegi ematen duela ikastetxeko aldizkarian, ezin ederragoa izanagatik ere, ordu gehiegi erabiltzen dituela eta irakasle eta tutore lana zabartuta daukala.

Ikasturtearen hasieran, Mikelek bere burua eskaini zuen aldizkaria koordinatzeko eta argi dago oso atsegin duela zeregin hori.

Departamentuko bileran, Anak uste izan du huraxe zela unerik egokiena Mikeli adierazteko bere ikastaldeari arreta handiagoa egin behar diola eta neurriak hartu behar dituela. Egin duena departamentuko buru moduan egin beharrekoa dela uste du.

Mikelen erreakzioa txarra izan da, bitarteko irakaslea izateagatik lanik okerrera egitea dagokiola uste baitu. Akusazio horrek mindu du Ana, berak preseski uste baitu bere sindikatuan borroka handia egin dela irakasle bitartekoen lan baldintzak hobetzeko eta ez duela bere onerako erabiltzen funtzionario izaera.

Sendo erantzun dio berak lan egiten duelako gustatzen zaizkion gauzetan zein gustatzen ez zaizkionetan. Uste du Mikelek lan handia egiten duela gustuko dituen kontuetan eta gustuko ez dituenetan zabar jokatzeko duela. Mikelek bilera utzi duenean egoera oso bortitza izan da.

Anak onartzen du egoera ez dela batere samurra eta orotan eragiten duela. Zuzendaritzak bitartekari arituko dela esan badu, zer edo zerengatik izanen da. Amorrua ematen dio bere departamentua ikastetxeko guztien ahotan egotea.

P. San Juan-en *Materiales para la mediación* liburutik (2008) egokitua.

XEKEAREN HERENTZIA	cos06a03
Irakurri ondoko testua eta, bikoteka, ikusi gatazkak konpontzeko zer estrategia jartzen diren mahai gainean. Komentatu eta batera jarri soluzioa.	
<p>"Basamortuko xeke bat hil egin zen hiru semeri hamabi gamelu utziz. Gameluen erdiak seme zaharrenari utzi zizkion eta gameluen laurdena bigarrenari eta gameluen bostena hirugarrenari. Banaketa zehatza ez baitzen, semeek bitartekari bat izendatu zuten, zein bere gameluan etorri baitzen. Bitartekariak egoera ebaluatu ondoren, bere gamelua herentziari gehitu zion... Orain hogeit hamar gamelu dituzte. Seme zaharrenak gameluen erdiak (hamar) hartu zituen, bigarrenak laurdena (bost) eta hirugarrenak bostena (lau). Honek hemeretzi egiten du, hau da, herentzian utzitakoa. Hartara, bitartekariak ez luke galduko bere gamelua. Hori egin ondoren, gamelura igo eta alde egin zuen".</p> <p>Semea edo alaba izanen bazina: Uste duzu soluzioa bidezkoa izan zela?</p> <p>Bitartekaria izanen bazina: Zer egingen zenukeen?</p> <p>H. Cornelius-en eta S. Faire-ren (1995) <i>Tú ganas, yo gano. Cómo resolver conflictos creativamente ... y disfrutar con las soluciones</i> liburutik egokitua.</p>	

Gatazkak era baketsuan konpontzearen balioak	cos06a04
<p>Eman parte-hartzaile bakoitzari galdera-sorta bat eta eskatu 5 minutuan bakarka erantzuteko. 5 minuturen buruan, bikoteak eratu behar dira eta galderei emandako erantzunak beste 5 minutuan adostu. Jarraian, bikoteak binaka jarri 4 pertsonako taldeak egiteko. Erabakia lortu 5 minutuan. Gero, 4 pertsonako bi talde lotu. Hala egin behar da talde handia bitan banaturik izan arte. Bukatzeko, lortutako erabakiak ahots gora azaldu. Denak adostasunera iristen ahalegindu behar da.</p>	
<p style="text-align: center;">Galdera-sorta</p> <p>1. Ordena itzazu gatazken soluzio baketsua bilatuz bultzatzen diren balioak (lehenik, gehien bultzatzen dena eta gero gutxienean):</p> <ul style="list-style-type: none">○ Justizia○ Pakea○ Solidaritatea○ Isilpekotasuna○ Errespetua○ Autokontrola○ Erantzukizuna○ Zintzotasuna○ Lasaitasuna○ Pazientzia○ Prestasuna○ Parte-hartzea○ Konpromisoa○ Sormena○ Lankidetzatza <p>2. Aurreko balioetatik, zure ustez, ikastetxe batean nahitaez zein bultzatu beharko lirateke? Esan 3.</p> <p>3. Ikastetxe batean gatazkak era baketsuan konpontzeko sistemak ezarriz gero, zer alderdi hobetuko litzateke? Esan gutxienez 2 alderdi.</p>	

GATAZKA BATEN AURREAN, ZER EGIN?	cos06a05
<p>Eratu 4-5 pertsonako taldeak. Taldeen erdiei eman A taula (taula horretan ageri dira gatazka konpontzen laguntzen duten estrategiak) eta gainerako taldeei eman B taula (gatazkak konpontzea oztopatzen duten jarrerak ageri dira).</p> <p>Eskatu talde bakoitzari falta den taula zatia osa dezala.</p> <p>Jarraian, emaitzak bateratu eta erkatu, eta denen artean ezarri gatazkaren aurrean praktika onen katalogoa.</p>	

GATAZKA BATEN AURREAN, ZER EGIN?	
A TAULA	
Konpontzen laguntzen du	Konpontzea oztopatzen du
Lasaitzea	
Aktiboki entzutea	
Errespetuzko hizkuntza erabiltzea	
Arazoa pertsonarengandik bereiztea	
Arreta arazoan fokatzea	
Norberaren posizioak defendatzen jakitea eta aldi berean bestearen sentimenduak errespetatzea	
Desenkusak galdetzen jakitea zerbaitetan huts egiten denean	
Soluzioak proposatzea	
Akordioak bilatzea eta haiek errespetuz hartzea	
Gatazkei aurre egiteko espazioak eta denborak izatea	

GATAZKA BATEN AURREAN, ZER EGIN?

A TAULA

Konpontzen laguntzen du	Konpontzea oztopatzen du
	Iraintzeak, oihu egiteak...
	Mehatxatzeak, defendatzeak
	Errua botatzeak, izen ona galarazteak
	Akusatzeak, orokortzeak
	Gatazkarekin zerikusirik ez duten beste alderdi batzuk aipatzeak
	Nork bere posizioa soilik ikusteak, mezprezatzeak, bestea barregarri uzteak
	Nork bere burua zuritzeak
	Nork bereari gogor eusteak, nork berea erreklamatzek
	Zurruna izateak
	Denbora igarotzen uzteak, bestearekin topo egitea saihestek

ZAZPIGARREN SAIOA: Gatazkak konpontzeko estrategiak: arbitrajea, epaiketa, bitartekotza.	cos07a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Gatazkak konpontzeko beharrezkoak diren trebetasunak praktikatzea.• Prozedura bakoitzaren ezaugarriak ezagutzea.• Prozeduren abantailak eta desabantailak aztertzea.• Gatazka bati emandako soluzioa ontzat emateko irizpideak adostea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• “Argituz entzuten ari garenean”. Entzute aktiboa (gatazkak konpontzeko trebetasun garrantzitsua) praktikatzeko hasierako jarduera.• “Entzuten jakin”. Adostasunerako prozedura baten bitartez, deskribatu gatazka bat konpontzen laguntzen duen pertsonaren nolakotasunak.• “Ezer baino lehen”. Gatazkak konpontzeko zenbait prozeduratara hurbiltzea: arbitrajea, epaiketa, bitartekotza, taldeko kideen ezagutzaren bitartez.• “Prozedura desberdinen azterketa”. Prozeduren antzekotasunak eta aldeak behatzea taula baten laguntzaz.• “Konpondurik daude?” Testuaren irakurketa, zeinetan gatazka bat soluzionatzeko irizpideak agertzen diren. Gatazka bat talde txikian aztertzea, akordioak soluziorako irizpide objektiboak betetzen dituen baloratzuz.	

Argituz entzuten ari garenean

cos07a01

HELBURUA: Hartutako mezu baten esanahia argitzen saiatzeko baliabideak esperimentatzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira. Bikote bat erdira aterako da. Bietako batek besteari mezu bat emanen dio. Azken honek, esanahia argitzeko, galderak erabiliko ditu ("txuleta" moduan jar daitezke kartel batean edo arbelean:

- Hori esan didazunean, zein zen zure asmoa?
- Zehatz-mehatz, zertaz ari zara?
- Zer esan nahi didazu?
- Zer espero duzu nigandik?
- Zer moduz zaude?

Bikotea aldatu eta prozesuari berriz ekingo zaio, baina entzuten duenak esanahia argi dezake parafraseatzeko teknika erabiliz.

"Makulu-hitz" batzuez lagun daiteke:

- "beraz, zure asmoa bada..."
- "esan nahi didazuna da..."
- "hala etortzen ikusita eta halako doinua entzun ondoren, uste dut..."
- "horixe esaten didazu espero duzulako nik..."

Entzuten jakin

cos07a02

HELBURUA: Balio berei egindako hautemate desberdinen gainean hausnartzea, hitzei ematen dizkiegun esanahiak aztertzea. Adostasuna lantzea.

PROZEDURA: Parte-hartzaile bakoitzari eskatuko diogu orri batean idatz ditzan gainerakoek diotena benetan entzun nahi duen pertsonak izan beharko lituzkeen hamar nolakotasun. Esate baterako: zuhurtasuna, errespetua, zintzotasuna...).

4 pertsonako taldeetan bildu eta 5 minutuan zerrendak erkatuko dituzte. Jarraian, bereiziko dira eta pertsona bakoitzak bere zerrendan nahi duena aldatu edo gehituko du. Horretaz gainera, nolakotasun horiek 1etik 10erako eskalan ordenatuko ditu, haiei ematen dien garrantziaren arabera.

Jarraian, banakako balorazioak talde handian bateratuko dira eta arbelean idatziko denok ikusteko moduan. Hemendik aurrera denen artean adostu beharko da nolakotasun zerrenda, garrantzi handienetik txikienera ordenaturik. Pertsona bakoitzak jarri dituen nolakotasunen zentzua azaltzeko eta gainerakoena ulertzen ahalegintzeko denbora-tarte bat utziko da.

Denbora-tarte hori bukatu, jarduera nola egin den, adostasunera iristeko zailtasunak zein diren eta hitz bati emandako hautemateak eta esanahiak baloratuko dira.

R. Hostie-tik (1994) egokitua (1994)

EZER BAINO LEHEN	cos07a03
Erantzun bakarka ondoko galderei eta, jarraian, 3-4 pertsonako taldeetan adosten saiatu. Jarraian, batera jarri talde handian.	
1. Ondokoen arteko desberdintasunak esan: -Epaiketa -Arbitrajea -Bitartekotza. 2. Ondokoen arteko antzekotasunak esan: -Epaiketa -Arbitrajea -Bitartekotza. 3. Liskar edo gatazka bat konpontzeari dagokionez, zer alde dago bitartekari baten, arbitro baten eta epaile baten arteko lanaren artean? 4. Zure ustez, zer da bitartekotza?	

**Jarduera gidatzeko galderak
EZER BAINO LEHEN**

Ondokoei dagokienez, zer alde aurkitu duzue arbitrajearen, epaiketaren eta bitartekotzaren artean?:

- Prozesuan parte hartzen duten pertsonak, hirugarrenek parte hartzen duten edo ez.
- Nola hartzen dute parte aldeek? Borondatez / eskatuta.
- Zein da prozeduraren helburua? Batek irabazten du eta besteak galtzen, biek ala biek irabazten dute...
- Nork konponduko du gatazka? Aldeek edo hirugarren pertsonak?
- Nolakoa izanen da aldeek adostu duten akordioa edo gatazkan parte hartzen duen hirugarren pertsonak (epaileak, arbitroak...) inposatzen duena?
- Aldeek konpromiso bera hartuko dute soluzioaren parte badira edo soluzio hori inposatzen bazaie?
- Bi kasuetan, akordioak berdin irauten du?

PROZEDURA DESBERDINEN AZTERKETA	cos07a04
3-4 pertsonako taldeetan, aztertu gatazkak konpontzeko prozedurak ondoko taularen laguntzaz eta adostasun batera iristen saiatu. Jarraian, batera jarri talde handian.	

<p align="center">"GATAZKAK KONPONTZEKO TEKNIKA ALTERNATIBOAK" Juan Carlos Torrego: MEDIACIÓN DE CONFLICTOS EN INSTITUCIONES EDUCATIVAS. Narcea, Madril, 2000</p>						
	<p>XEDEA. Iraganean edo etorkizunean zentratua. Nork irabazten du?</p>	<p>HIRUGARRENEN PARTE-HARTZEA. Badaude edo ez daude. Erabakigarria da edo ez da.</p>	<p>ALDEEN PARTE-HARTZEA. Borondatezkoa da edo eskatutakoa da.</p>	<p>KOMUNIKAZIO EGITURATUA Formala edo informala da.</p>	<p>NORK ERABAKITZEN DU? Aldeek edo hirugarren batek.</p>	<p>ERABAKIAREN EDO AKORDIOAREN INDARRA. Loteslea da edo gomendioa da.</p>
Negoiazioa						
Lana eta familia uztartzea.						
Bitartekotza						
Arbitrajea						

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

Epaiketa						
----------	--	--	--	--	--	--

Konpondurik daude?	cos07a05
4-5 pertsonako talde bakoitzean aztertu ondoko gatazka hauetako bat, baloratzuz soluzio ona eman zaien, aurkeztutako irizpide objektiboen arabera. Arrazoitu iritziak eta aurkeztu talde osoari.	
<p style="text-align: center;">Gatazka baten soluzioa baloratzeko irizpide objektiboak</p> <ol style="list-style-type: none">1. Justizia. Soluzioak aldeak errespetatzen ditu. Bi aldeek irabazten dute? Bi aldeek galtzen dute? Aldeetako bat okerrago gelditu da? Bi aldeek irabazten dutenean, soluzioarekin konpromisoa hartu dute onuradun izan direlako.2. Zehaztapena, faktibitatea. Akordioa errealista, deskribatzailea eta zehatza da. Soluzioan praktikara eraman beharreko lanak daude. Hala ere, argi dago xedea eta nork, nola eta noiz egin behar den.3. Oreka. Bi aldeek nabarmen aldatu dituzte posizioak eta horrekin irabazi egin dute. Aldeek prozesuan parte hartu dute eta horrekin pozik daude.4. Irauten duena. Luzerako konpondu da ala gatazkarekin amaituko ez duen azaleko soluzioa izan denez, berriz sortuko da. Denek hartu dutenez parte hartutako soluzioarekiko konpromisoa, handiagoa da eta jende gehiagok onartuko du eta gehiago iraunen du.5. Konpromisoa hartutako erabakiarekin. Gatazka konpontzeko prozesuan alde guztiek hartu dutenean parte, soluzioarekiko konpromisoa handiagoa da, alde guztiek parte hartu ez dutenean baino.6. Eragina pertsonen arteko harremanetan. Aldeen arteko harremanari eta ez soilik interesari egin zaie arreta. Gatazkak harremanak ez kaltetzeko, komeni da alde inplikatuak partekatutako arazo moduan hartzea; alde horiek elkarrekin egin behar dute lan (bata besteari oldartu beharrean) alde bakoitzaren interesak ahalik eta gehien errespetatzen dituen soluzio bat aurkitzeko.7. Irekia etorkizunari. Beharrak eta interesak aldatu daitezkeenez, etorkizunean aldatzeko aukerak izatea aurrez ikusten da.	

1. gatazka

Maite 1.C mailako ikaslea da eta korridorean Fernando aurkitu du, talde horretako irakasle eta tutorea. Maitek ikasgelako bi ikaskide salatu ditu korridoreetan eta autobusean molestatzeko dutelako.

Fernandok esan dio haiekin hitz egingen duela. Biharamunean, klasea bukatutakoan, bi neska horiei, Aneri eta Mireni, esan die haiekin hitz egin nahi duela. Galdetu die zer gertatzen den autobusean eta zer duten Maiteren kontra. Oso haserre, dena ukatu dute eta gezurrak direla esan diote. Fernando harriturik gelditu da.

Biharamunean, departamentuan dagoenean, Mirenen amaren deia hartu du: oso haserre esan dio zer-nolatan lepora diezaiokeen bere alabari "jazarpena". Fernandok azaldu dio berak ez duela halakorik egin eta ez duela inolako akusaziorik egin. Amak ez dio erantzun.

Elkarrizketa bukatu dute elkarren arteko akordiorik gabe.

Fernandok ez daki zer egin. Klasean giroa ez dela ona nabaritu du. Badirudi Anek eta Mirenek beste neska batzuk beraien aldeko aliatu egin dituztela eta oso minduta daudela.

Handik bi egunetara zuzendariak bere bulegora deitu du. Zuzendariak esan dio Maiteren ama etorri dela berarekin hitz egitera, gainerako nesken amek esan diotelako bere alaba hor barna esan eta esan ari dela. Esan dio Maiteren amak "hondoa" jo duela gai honengatik eta premia zer edo zer egitea eskatu diola.

Luze hitz egin ondoren eta orientatzaileari kontsulta eginik, erabaki dute Maite eta bere lagunik onena ikasgelaz aldatzea, Anerekin eta Mirenekin topo egin ez dezaten. Autobusari dagokionez, ibilbide guztietan nahitaez toki jakin batzuetan eseri beharko dute, neskak ez daitezten elkarrengandik hurbil egon. Era berean, erabaki dute zuzendariak inplikaturiko familiakoekin hitz egingen duela, neurrien berri emateko eta gaztigitzeko hemendik aurrera ez duela inorenganako errespeturik eza erakusten duten jokabiderik onartuko.

2. gatazka

Doloresek ezin du eskailerarik igo; igogailurik gabeko etxe batean bizi da, lehen solairuan. Igogailua jartzeko aukera dago, eskaileran obra handia egin ondoren. Doloresen seme-alabek zer egin behar den jakin ondoren, auzotarren bileran azaldu dute. Hasieratik argi gelditu da ez dela akordiorik izanen. Bi auzokide kontra daude. Bilera gehiago egin da eta haietan ez da deus ere lortu; animoak haserretu dira eta akusazioak elkarri bota dizkiote. 3 auzokide prest daude obra egin eta ordaintzeko. Beste bik, aldiz, ez dute aldaketarik nahi eta epaitegietara jotzeko mehatxu egin dute. Auzokideak elkarren kontra daude eta ez da aurrera egiten. Doloresen alaba batek legeek diotena jakin du. Ikusirik jarrerak ez direla aldatzen, Doloresendako banakako aulki bat jartzea erabaki dute.

3. gatazka

Angela hiri baten erdialdeko institutu bateko Fisika eta Kimikako irakaslea da. Berak uste du irakasle moduan asko eskatzen duela, baina justua dela aldi berean. Ikasturte hasiera hau gogorra egiten ari zaio. Iraileko azterketen ondoren etxean dei iraingarriak hasi da hartzen. Batzuetan arratsaldeko lehen orduan izaten dira, beste batzuetan gauetz, baita goizaldeko ordubietan eta hiruretan ere. Mutilen ahotsak dira eta ez beti ahots bera. Urduri dago, baita bere familia ere, batzuetan bere semeetako batek hartu baitu deia. Gau batean, telefonoa hartzen zuen bitartean, bere senarrak leihotik ikusi ditu 3 nerabe kaleko telefono kabina batean; bata hitz egiten eta besteak barrez. Angelaren senarra kalera jaitsi eta mutiletako bat harrapatu du. Azken honek zer egin duten aitortu du eta beste bi mutilen izenak eman ditu. 3 mutil horiek iazko ikasturtean Angelaren ikasle izan ziren eta irailean ez zuten Fisika eta Kimika gaudituz. Angelak salaketa jarri du Polizia Etxean eta kasua institutura eraman du.

Ikastetxean eztabaida piztu da eta, oro har, ikasleak berehala ikastetxetik egozteko eskaria egin da. Zuzendariak diziplina espedienteak ireki ditu. Ondorioak ikusirik, Eskola Kontseiluan zalantzak daude gertaerak ikastetxetik kanpo gertatu baitira, eskola-orduetatik at. Azkenean, ikastetxetik egoztea erabaki da. Mutiletako baten gurasoek protesta egin dute uste baitute epaileek gertaera berarengatik zigortuko dutela eta, beraz, birritan zigortu egiten dela. Administrazioak hiri baten erdialdeko beste ikastetxe batzuetan sartzen ditu ikasle horiek. Ikastetxean zenbait irakasle eta guraso asko ez daude ados hartutako erabakiarekin.

Angelak aitortu du errezeluz begiratzen diela orain ikasle batzuei eta ez dagoela lasai.

ZORTZIGARREN SAIOA: Negoziazioa eta bitartekotza.	cos08a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Negoziaziorako eta bitartekotzarako beharrezkoak diren trebetasunak praktikatzea.• Bitartekotzaren ezaugarriak eta faseak ezagutzea.• Bitartekarien eginkizunak zein diren ezagutzea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Atertibitatea praktikatuz". Adierazpen asertiboa eta hizkuntza deskribatzailea lantzeko jarduera.• "Negoziatuz". Testua irakurtzea. Testuan azaltzen dira negoziazioaren faseak eta gatazka bat modu negoziatu batean konpontzerakoan kontuan eduki beharreko gomendioak. Testua irakurri ondoren, 3 pertsonako taldeetan praktikatuz negoziazioa gatazka konpontzerakoan.• "Gatazken bitartekotza ikastetxeetan". Bideoa ikusi eta aztertzea. Bitartekarien eta bitartekariak taldeetan egiten dituzten ekintzen gaineko alderdiak aztertzea.• "Bitartekariak egin behar duena". "Bitartekarien ohiko akatsak: egin behar ez dena" dokumentuaren irakurketa. Erreferentzia modura hartuz, taldean prestatu bitartekariarendako praktika onen dekalogoak.	

Asertibitatea praktikatuz

cos08a01

HELBURUA: Baliabideak erabiltzea adierazpenak modu asertiboan egiteko, hizkuntza deskribatzailea eta ez-baloratzailea erabiliz.

PROZEDURA: Parte-hartzaile guztiak hirunaka jarriko dira. Talde bakoitzari 6 mezu desberdin emanen zaizkio eta aztertuko dira jakiteko mezu horiek deskribatzaileak edo baloratzaileak diren. Baloratzaileak badira, taldeak aldatuko ditu eta mezu asertibo bihurtu. Talde guztien bateratze-lana eginen da gero. Balizko mezuak:

- Zakarregia izan zara Miriamekin, ezin duzu jendea horrela tratatu, neska bikainarena egiten duzu eta ez duzu kontrolatzen, neska...
- Zer, seme, ez duzu adimenik jakiteko esnea berriz hozkailuan sartu behar dela? Ez zara ume-mokoa gero hori ikasteko...
- Begira, zurekin hitz egin nahi dut badaramazulako denbora bat ergelarena eginez, ez duzu matraka besterik ematen gelan; hala segitzen baduzu, ez duzu dena gaindituko. Ez dizu axola edo?
- Zure semeak bi aste darama ingeleseko etxeko lanik ekarri gabe.
- Badakit damu duzula ikasgelako afarira ez joatea, baina sukarrak jota zaude eta zara etxetik aterako.
- Laneko egun gogor baten ondoren, ahiturik nago eta etxean isiltasun eta lasaitasun une bat izan nahi nuke afaria gertatzen hasi aurretik.
- 5. mailako ume mukizu hauek motzak dira, ez da deus egiterik haiekin eta matematikan ezin da aurrera egin ez baitute deus ere ulertzen.
- Agindutako ordua baino beranduago iristen zarenean, kezkatu egiten naiz zerbait gertatu zaizula uste baitut; hobe zenuke niri gaztigatzea beranduago etorri behar duzunean.
- Eskergabea da, idazkiak egin ditu eskubideak erreklamatu eta gure jarduna kolokan jarri, ez du kontuan hartu nire mende dagoela, aspaldi jende askok aholkua eman zidan hemendik lekuarazteko.
- Konturatu naiz azkeneko saioetan ez duzula parte hartu talde handian egindako ahozko jardueretan. Zer gertatzen zaizun esanen didazu?
- Lanera joateko 08:30ean atera behar dut etxetik. Atzeratzen bazarete oso urduri jartzen naiz, beraz, ordu horretako prest izan behar duzue.
- Zure semea jasangaitza da, bere ikaskideak ere nazka-nazka eginda dauzka, ez baita geldirik egoten klasean eta, gainera,

askotan eten egiten du klasea, galderak eginez, ergelkeriak esanez. Hala segituz gero, ez du kurtsoa gaindituko.

- Etxeko lanak egiten dituzunean nota hobeak ateratzen dituzu.
- Planak aldatzen badizkirate ni kontsultatu gabe, uste dut deustarako ez nagoela eta gustatuko litzaidake gutxienez niri esanen balidate erabakia hartu aurretik.
- Ez zara larunbat honetan geldituko, badakizu ezinezkoa dela, huts egin behar duzu aitonaren urtebetetzea. Nor zarela uste duzu, bada? Ezin duzu familia guztiaz paso egin, badirudi axola gehiago dizutela zure lagunak zure aitona baino; ezin dut sinetsi zure aitona-amonek zugatik egin dutena ikusita.
- Zergatik zara hain zikina? Hamaika aldiz esan dizut arropa ikuzteko ontzira botatzeko.
- Ukitzen nauten aldaketak egiten direnean aurretik ezarrita ditugun txandetan, molestatu egiten dit nire antolaketa aldatzen delako, eta aldeztu aurretik aldaketen berri izan nahi dut.
- Arduragabea zara, ez zara antolatzen eta azkeneko egunean laguntza eskatzen didazu lan hau egiteko. Hala segitzen baduzu, axolagabe, ez duzu sekula deus ere erdietsiko. Ikusten dut, bai, ez duzula deus ere ikasi ebaluazio hartan gertatu zitzaizunetik...

Negoziatuz	cos08a02
Irakurri arretaz "Aldeendako gomendioak" eta "Negoziazio faseak" izeneko testuak. Jarraian, hiruko taldeak egin. Bi kidek gatazka bateko bi aldeen rola hartuko dute eta hirugarrenak negoziazio prozesuari erreparatuko dio konponbidea bilatzeko. Bateratze lana, praktikaren garapena azaltzeko izan diren asmakuntzekin eta zailtasunekin.	
<p><i>"Bizitza osoan pertsonak maiz negoziatzen dute eta konpromisoak eta agintzak trukutzen dituzte. Negoziazioa prozesu bat da eta prozesu horretan bi alde edo gehiago hasierako eskakizunak aldatu ondoren gatazka bat konpontzen ahalegintzen dira denendako aski onargarria izanen den emaitza lortu arte. Negoziazio baten helburua ez da garaile ateratzea, bi aldeek justutzat eta, ondorioz, errespetagarritzat duten akordio orekatua lortzea baizik."</i></p>	
<p style="text-align: center;">Aldeendako gomendioak</p> <p style="text-align: center;">Fisher eta Uryk (1980) prestatutako Harvard ereduaren arabera</p> <p>1) Negoziazioa interesetara bideratzea (norberaren interesak eta beste aldearenak modu bateratuan kontuan hartuz) eta ez oinarritzea posizioetan, alde inplikatu guztiendako soluziorik onena batera bila dadin laguntzeko. Ildo honetan, maizenik gertatzen den akatsa da hasieratik beretik proposamen jakin bat mahai gainean jartzea, uste izanez hura dela modurik onena norberaren interesak defendatzeko eta proposamen hori bukaera arte aldatu gabe defendatzea.</p> <p>2) Pertsonak arazotik bereiztea. Gatazkan sortutako tentsioak aldean arteko komunikazioa zailtzen du eta horrek, hasierako gatazkaz gainera, esate baterako, interesen edo eskubideen arteko gatazka konpontzea oztopatzen duen pertsonen arteko gatazka (konfiantzarik eza, etsaitasuna...) sortzen du. Gatazka saihesteko oso garrantzitsua da bi gauzak ez nahastea eta komunikazio estiloa asko zaintzea.</p> <p>3) Alternatibak sortzea bion onurarako. Soluzio jakin bat dagoela pentsatzea saihestu behar da, eta ez da uste izan behar gure interesen aldeko edozein hobekuntzak beste aldearenean galera ekarriko duela. Alternatiba eraginkorrak sortu ahal izateko, komeni da: partekatutako interesak identifikatzea; alde desberdinetako interesak nahastea</p>	

elkarren artean osagarri diren ikusteko; guretako baliagarriak izan daitezkeen alternatiba bat baino gehiago aurkeztea eta beste aldeari galdetzea alternatiba horietako zein nahiago duen; eta beste aldearen erabakia erraztea.

4) Irizpide objektiboetan behin eta berriz eragitea

Garrantzitsua da negoziatzea eta alde bakoitzaren borontatetik haratago joan eta kontuan hartzea beste irizpide batzuk, hala nola, justizia, harremana mantentzea, erkidego osoaren interesak, soluzioen bideragarritasuna eta praktizitatea...

Negoiazioaren faseak

(Fisher eta Ury-tik (1990) eta Geuz-en laneko dosierretik hartua)

1) Prestatzea (*bakarkako azterketa*):

- beharren eta beldurren eskema egitea
- zer lortu nahi den argi izatea (begien bistakoa eta begien bistakoa ez dena)
- emaitza onargarriak lortzea, maximoei eta minimoei dagokienez
- beste aldearen kasuan lan egitea (aukerak, zailtasunak, ondorioak...)
- beste pertsonaren gainean dauden usteak edo aurreiritziak

2) Denbora eta giroa hautatzea:

- une eta leku egokiak aukeratzea
- konfiantzazko giroa sortzeko kezka izatea
- asmo baikorrak erakustea
- beste pertsonak gatazka konpontzeko duen prestasuna onartu eta baloratzea

3) Aldeen arteko elkarrekintza eta elkarrizketa:

- modu aktiboan entzutea, ulertzeko beste aldeak nahi eta behar duena
- asertiboa izatea norberaren beharrak zein diren azaltzeko eta beldurrik ez izatea benetan nahi dena eskatzeko
- gauzak argi eta modu zehatzean azaltzea
- hizkuntza deskribatzaile eta ez-baloratzailea erabiltzea
- beste aldeak baieztapen zurrunik egiten baditu edo balorazioak orokortuz egiten baditu, zehaztasuna bilatzen duten galderak egitea
- beste aldearen ikuspuntua onartzea, haren beharrak kontuan hartzea
- puntu komunak eta bat-etortzeak identifikatzea
- malgua izatea (zer lortu nahi denean hasi eta zer onartu

behar den arteko bidea aztertu, "helmuga mantendu, ez bidea"

- egoeraren ulermen berria laburbiltzea
- gelditzea, emozioak oso biziak bilakatzen badira, egoerak ez badu aurrera egiten, erabakirako jarrerarik ez badago

4) Erabakia:

- hitz egitea erabakia hartzeko urratsen gainean
- balizko alternatiba guztiekin zerrenda bat egitea
- ekintza zehatzak bururatzea
- alternatiba bakoitzaren abantailak eta desabantailak zehaztea
- alternatiba bakoitzaren egingarritasuna egiaztatzea
- soluziorik onena aukeratzea bi aldeen irabazien arabera
- alde bakoitzak zehatz-mehatz zer egin behar duen erabakitzea

5) Ixtea:

- pentsatzea erabakiak arazoa konponduko ote duen
- aztertzea erabakia behar beste zehazturik ote dagoen eta hura betetzerik baden
- erabakiaren oreka aztertzea
- erabakia baieztatzea; idaztea, beharrezkoa bada
- etorkizunean bilera bat ezartzea erabakiaren betetze-maila gainbegiratzeko

Negoiazteko gatatzak

1. gatatzak

Isabelek ostiralean afaria zuen bere neska-lagunekin. Egia esateko, gero eta gutxiago elkartzen dira. Urtean hiruzpalautan bakarrik. Den-denak lanpeturik dabilta euren lanekin, seme-alabekin eta, azken aldi honetan, gurasoekin, gero eta zaharrago eta mendekoago bihurtzen ari baitira. Nolanahi ere, txinpartak ateratzen dituzte biltzen direnean. Isabel irrikitan dago noiz iritsiko den ostirala. Alabaina, asteazkenean, afariko platerak biltzen ari ziren bitartean, afariarena esan zion Biktorri eta honek harriturik begiratu zion:

- Datorren ostiralean? Ezinezkoa da. Aparejadoreen Elkargokoekin dut afaria, badakizu; gero mus txapelketa dugu. Hamaika aldiz esana dizut, bada! Non duzu burua?

Isabel mutu gelditu zen. Ez zekien deus ere. Berak proposatu zien bere neska-lagunei afaria ostiralean egitea, Biktorren beste konturen batekin bat ez egiteko.

Biharamunean Isabelek neska-lagunei deitu zien esateko bera ez zela afarira joanen, beste egun batean beharko zuela.

Larunbatean, Biktor berandu jaiki zen. Bitartean, Isabelek haurrak hartu eta partidetara eraman zituen, erosketak egin zituen, etxea atondu zuen, ikuzgailua jarri zuen, bazkaria prestatu zuen...

Bazkarian hitz handirik ez. Arratsaldean, hurrekin zinemara joateko proposamena egin zuen Isabelek. Baina Biktorrek ez zuen irteteko gogorik –gainera, telebistan saskibalo partida bat ematen zuten eta ez zuen galdu nahi-. Hala ere ez zitzaion gaizki iruditu Isabel eta haurrak zinemara joatea.

Hara non gatazka lehertzen den. Isabelek Biktorri esan zion berekoia zela, haurrak ez zituela behar bezala zaintzen, sekula ez zuela plan pertsonal bat uzten bere familiarekin egoteko... Biktorrek, aldiz, bere burua defenditu zuen eta aiherra ziola esateaz gainera, gaineratu zuen gauzak ez zituela garbi esaten eta bere planak inposatzen saiatzen zela...

Eztabaidan gaiak atera ziren, hala nola, bakoitzak egiten zituen lanak eta aisiarako jarduerak (kirola, telebista, zinema...) nola zeuden banaturik eta nork zeraman haurren lan-zama. Isabelen ustez, gehien-gehiena berak egiten zuen.

2. gatazka

Rosanak irailean lau gelako etxebizitza handi bat hartu zuen alokairuan. Alokairuagatik 650 euro ordaintzen ditu. Horri gehitu behar zaizkio argia, berokuntza, gasa... Rosana bakarrik dago bere bi semeekin. Bere senarrak Ekuadorren segitzen du eta ez da erraza izanen haiekin elkartzea. Rosanak zenbait etxetan egiten du lan garbitzen, lisatzen, kozinatzen... Zernahitan, baina ez du behar adina irabazten. Hori dela-eta, etxebizitzako bi logela beste errentari batzuei alokatu dizkie. Bi logela gorde ditu beretako eta bere bi semeendako eta gainerako biak alokatu ditu. Ez du zorte handiegirik izan errentariekin: bikoteetako batek maiz egiten du oihuka eta gizona gauero mozkorturik iristen da etxera. Jakina, zalaparta handia sortzen da. Beste bikoteko bi kideak lanik gabe gelditu direnez, ez dira etxetik ateratzen eta etxean daudenean telebista oso altu jartzen dute.

Etxeko bizilagun batzuk kexatu zaizkio Rosanari. Egoera aldatzen ez denez, kexa etxearen jabeari egin diote. Etxearen jabeak Rosanari deitu eta esan dio ez dagoela prest egunero kexak hartzeko. Etxean beste pertsona batzuk sartzen segituz gero, etxea utzi beharko duela gaineratu du.

Rosanak erantzun dio beste errentari batzuk behar dituela alokairua ordaindu ahal izateko, alokairua handiegia dela familia batek bakarrik ordaindu ahal izateko.

Jabeak erantzun dio lasaitasuna nahi duela; bere etxebizitza alokatu nahi du, baina ez egun batean bai eta bestean ere bai arazoak sortuko dizkion norbait. Eta ezin badu alokairua ordaindu alde egin beharko duela.

Gatazken bitartekotza ikastetxeetan	cos08a03
"Gatazken bitartekotza ikastetxeetan" (2001) bideoa ikustea. 4-5 pertsonako taldeetan aztertzea, proposatutako gidoia erabiliz eta jardueraren bateratze lana eginez.	
BIDEOA AZTERTZEKO GIDOIA	
<p>1. Zuen ustez, ongi aritu dira bitartekariak? Zer egin dute ongi?</p> <p>2. Bitartekariak, tentsioa baretzen lagunduko dute? Konfiantzarik eman dute? Nola?</p> <p>3. Zer trebetasun erabiltzen dute aldeei euren posizioetatik harago joaten laguntzeko? Zer egin dute behar eta interesetara iristeko?</p> <p>4. Arazoa argitzen lagundu dute? Nola?</p> <p>5. Bitartekariak, soluzioak sortzen lagundu dute? Nola?</p> <p>6. Akordio batera iritsi dira? Argi gelditu da? Behar bezala mugaturik dago?</p> <p>Bideoa: <i>Gatazken bitartekotza ikastetxeetan</i> UNED (2001)</p>	

Bitartekariak egin behar duena	cos08a04
Irakurri ondoko testua, komentatu 4-5 pertsonako taldeetan eta eredu modura hartuta prestatu praktika onen dekalogoak: "Bitartekariak egin behar duena"	
"BITARTEKARIEN OHIKO AKATSAK: EGIN BEHAR EZ DENA" J. C. Torrego-tik egokitua	
<ul style="list-style-type: none">• Galdera gehiegi egitea Ez da ezinbestekoa informazio asko izatea, informazio garrantzitsuena izatea baizik. Bitartekariak aldeei aukera eman behar die adierazpenak eurek nahi bezala egiteko, baina isiluneak errespetatuz.• Galdera itxiak egitea Galderak "bai" eta "ez" besterik ez direnean, zaila da posizioetatik behar edo interesetara igarotzea.• "Zergatik?" galdera gehiegi erabiltzea Honako hauen ordez: "Zergatik iraindu zenuen?" Hobeki honela: "Esadazu zer gertatu zen hark zuk iraindu zenuela esan aurretik..."• Aldeetako batekin eztabaidatzea Bitartekariak ez dio atsekaberik edo oposiziorik erakutsi behar aldeetako batek esaten duenari.• Iritziak ematea Ez esan: "Zuetako bat gezurretan ari da...". Ezta ondoko hau ere: "Horiek tontakeriak dira", "Ez duzu uste zure portaera desegokia dela?"...• Soluzioa ematea Galderak egin gatazkari soluzioak iradokitzen ariko bazina bezala.• Kontseiluak ematea Ondoko hau esan beharrean: "Gogoan izan zein den garrantzitsua elkarrekiko errespetua". Galdera modura aurkeztu: "Nolako nahi duzue izatea zuen harremana etorkizunean?"• Aldeei mehatxu egitea Ez esan: "Hau ez baduzue konpontzen, espediente batekin konpondu beharko duzue" Honela esan daiteke: "Erabaki zenuten konpontzen saiatuko zinetela; gogorra izan daiteke, baina hala ere asko egin dugu aurrera eta garrantzitsua da honela segitzea."• Bakeak bortxaz egitea	

Aldeek adostasuna lortzen dutenean berez etorriko den zerbait da; ez da behartu behar. Ez eskatu berriz lagunak izan daitezen, desenkusak eskatu edo eman ditzaten edo eskua elkarri eman diezaioten.

- **Bitartekotza inposatzea**

Aldeek ezin badute edo ez badute jarraitu nahi, bitartekariak egin dituzten ahaleginak onartu behar ditu eta haien sentimenduak eta erabakiak errespetatu behar ditu. Garrantzitsua da jakin dezaten berriro ahalegindu daitezkeela, horretarako prest daudenean edo egokia iruditzen zaienean. Prozesu berri bati ekiteko atea irekita uztea.

Bitartekariak egin behar duena

(Praktika onen dekalogo)

BEDERATZIGARREN SAIOA: Bitartekotzan (I).	cos09a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bitartekotzaren ezaugarriak eta faseak ezagutzea.• Bitartekotza praktikatzea aldez aurretik prestaturiko kasuekin.• Bitartekotzarako praktiketan ezarritako estrategiak behatzea.• Ikastetxe batean gatazkak konpontzeko estrategia modura erabilia, bitartekotzaren abantailen eta desabantailen ganean hausnar egitea. <p>JARDUERAK</p> <ul style="list-style-type: none">• "Bitartekotza". Power point erako diapositiben aurkezpena bitartekotzaren ezaugarriak eta faseak azalduz.• "Bitartekotzan". Talde handian egiteko jarduera, aldez aurretik prestaturiko kasu batzuen ganean taldekide batzuek egin duten praktika behatu eta aztertzeko.• "Bitartekotzak ikastetxean dituen abantailak eta desabantailak". Hausnartzeko eta adostasuna lortzeko jarduera, bitartekotza ikastetxean gatazkak konpontzeko tresna modura egokia den edo ez erabakitzeko.	

BITARTEKOTZAN	cos09a02
<p>Parte-hartzaile guztiak zirkuluan jarriko dira eta erdian 3 lagun. Hiru lagun horietatik bi gatazka bateko bi aldeak izanen dira eta hirugarrena, berriz, bitartekaria. Behatzaileek "Bitartekotza behatzeko gidoia" izanen dute esku artean eta bateratzerako oharrak hartzeko laguntza emanen die. Alde bakoitzak gatazkan duen rolaren gaineko materiala izanen du. Bitartekariari kasua eta "Bitartekariarendako gidoi laburra" emanen zaizkio.</p>	

Bitartekotza behatzeko gidoia

1. Bitartekariak konfiantza sortu du? Tentsioak baretzen lagundu du? Nola?
2. Arauak argi gelditu dira?
3. Bitartekaria bere rolari egokitu zaio? Zure ustez, zein gauzatan ez zaio egokitu bere rolari?
4. Bitartekariak aldeei lagundu die beren posizioetatik haratago joanez haien behar eta interesetara joaten? Nola?
5. Arazoa argitu da? Nola?
6. Bitartekariak aldeei lagundu die soluzioak eta alternatibak sortzen?
7. Zein erabaki hartu da, baten bat hartu bada? Argi gelditu da?
8. Zuen ustez, ongi aritu da bitartekaria? Zer gustatu zaizu?
9. Zer iruditu zaizu zailena? Zergatik?
10. Beste ohar interesgarri batzuk.

Kasua	<u>JOSEBA (AITA) ETA KARMEN (TUTOREA)</u> P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	Zigor bat dela-eta familiak erreklamazioa jarri du
Orria honendako	Prestakuntzaren dinamizatzailerak
<p>1.B mailako tutorea da Karmen. Astelehenean, klasera iritsi zenean, Josu eta Markel ikasleak borrokan ari ziren. Tutoreak bereizi zituen, parte bana egin zien eta egotzitakoan gelara bidali zituen. Gorabeheren erregistroan ez baitzuten deus ere idatzi, ikastetxearen bizikidetzara araudiaren arabera zigortu zituen. Josuren aitak, bere semearekin hitz egin ondoren, uste du tutoreak ez duela zuzen jokatu eta zuzendariaren aurrean erreklamazioa aurkeztu du.</p> <p><u>JOSEBA</u> Uste duzu tutorea ezgauza dela. Liskarra hasi zuena beste ikaslea da, zure semea beti molestatzen eta gogaitzen ari dena. Azkenean, bere burua defendatu beharra dauka. Tutoreak ez daki edo ez du jakin nahi beste mutil horrek nola jokatzen duen klasean. Ez duzu ulertzen halakoak nola izan daitezkeen ikasgela bateko tutore. Gaur ikastetxera joan zara zuzendariaren aurrean kexa egitera, irakasleari ederrenak eta bi esatera. Zure ustez, zure semeak babestuago egon beharko luke eskolan. Zigorra kentzea nahi duzu ez delako batere justua.</p> <p><u>KARMEN</u> Zure lanean profesional ona zarela uste duzu. Ikasgelako bizikidetzaz arduraturik zaude. Aurreko batean, ikasgelara iritsi zinenean, zalaparta handia zegoen. Azkar mugitu zinen eta borrokan ari zirenak bereizi zenituen. Liskar horiek azkar bukarazi behar dira. Gero, mutilek ez zuten kolaboratu eta, ondorioz, zigor ederra erori zitzaion. Aurten zure taldea matraka handia ematen ari da. Markel beti sesioz sesio eta Josu, on puska. Hala ere, liskarren batean sartu da. Gaur zuzendariak deitu eta esan dizu Josuren aita etorri dela, oso haserre, zutaz eta zure jardun bidegabeaz kexaka. Gainera, korridorean beste irakasle batzuekin topo egin eta haiei astoarenak eta bi esan dizkie zure kontra. Lur jota zaude, uste baituzu zurekin bidegabe aritu direla eta baztertu zaituztela. Eskatu duzu zure izen ona berreskuratu eta tutore moduan hartutako erabakiak errespetatu ditzatela.</p>	

Kasua	<u>JOSEBA (AITA) ETA KARMEN (TUTOREA)</u> P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	Zigor bat dela-eta familiak jarritako erreklamazioa
Orria honendako	Bitartekaria
<p>1.B mailako tutorea da Karmen. Astelehenean, klasera iritsi zenean, Josu eta Markel ikasleak borrokan ari ziren. Tutoreak bereizi zituen, parte bana egin zien eta egotzitakoen gelara bidali zituen. Gorabeheren erregistroan ez baitzuten deus ere idatzi, ikastetxearen bizikidetzara araudiaren arabera zigortu zituen. Josuren aitak, bere semearekin hitz egin ondoren, uste du tutoreak ez duela zuzen jokatu eta zuzendariaren aurrean erreklamazioa aurkeztu du.</p>	

Bitartekariarendako gidoi laburra

1. Aurkezpena:

- banaketa garrantzitsua da: ez jarri aldeak parez pare
- azaldu aldeei prozesua eta arauak zertan dautzan
- erabaki denbora
- azaldu bitartekariaren rola zein den

2. Kontaidazu:

- lagundu aldeei esan beharrekoa esan dezaten, beren beharrak eta interesak zein diren adieraz ditzaten
- entzun emozioak eta sentimenduak
- orekatu aldeen parte-hartzea
- baimendu isiluneak

3. Argitu arazoa:

- bereizi gatazkako alde funtsezkoa
- puntu garrantzitsuak laburtu
- ikuspuntu desberdinak argitu eta onartu
- zehaztu puntu komunak
- deskalifikazio pertsonalak berbideratu, baleude
- perspektiba berriak sortu, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten lagundu

4. Aukerak edo soluzioak:

- orientabideak eman gerora begira: lortu nahi denari buruz
- azpimarratu baikortasuna: zer nahi den eta ez horrenbeste zer ez den nahi
- "ideia zaparrada" egin
- prozesuan zehar aldeek ekarritako ideiak berreskuratu
- ez proposatu soluziorik (neutraltasuna mantendu)

5. Erabakiak:

- proposamenak ebaluatzen lagundu, aldeko eta kontrakoekin
- erabakia errealista eta egingarria izan dadin ahalengindu
- erabakia idatzi
- aurrerakuntza ebaluatzeko data finkatu
- aldeen parte-hartzea eta ekarpena onartu eta baloratu
- erabaki bat lortu izana ospatu

Kasua	<u>JOSEBA (AITA) ETA KARMEN (TUTOREA)</u> P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	Zigor bat dela-eta familiak jarritako erreklamazioa
Orria honendako	Karmen (tutorea)
<p>1.B mailako tutorea da Karmen. Astelehenean, klasera iritsi zenean, Josu eta Markel ikasleak borrokan ari ziren. Tutoreak bereizi zituen, parte bana egin zien eta egotzitakoen gelara bidali zituen. Gorabeheren erregistroan ez baitzuten deus ere idatzi, ikastetxearen bizikidetzara araudiaren arabera zigortu zituen. Josuren aitak, bere semearekin hitz egin ondoren, uste du tutoreak ez duela zuzen jokatu eta zuzendariaren aurrean erreklamazioa aurkeztu du.</p> <p><u>KARMEN</u> Zure lanean profesional ona zarela uste duzu. Ikasgelako bizikidetzaz arduraturik zaude. Aurreko batean, ikasgelara iritsi zinenean, zalaparta handia zegoen. Azkar mugitu zinen eta borrokan ari zirenak bereizi zenituen. Liskar horiek azkar bukarazi behar dira. Gero, mutilek ez zuten kolaboratu eta, ondorioz, zigor ederra erori zitzaien.</p> <p>Aurten zure taldea matraka handia ematen ari da. Markel beti sesioz sesio eta Josu, on puska. Hala ere, liskarren batean sartu da.</p> <p>Gaur zuzendariak deitu eta esan dizu Josuren aita etorri dela, oso haserre, zutaz eta zure jardun bidegabeaz kexaka. Gainera, korridorean beste irakasle batzuekin topo egin eta haiei astoarenak eta bi esan dizkie zure kontra. Lur jota zaude, uste baituzu zurekin bidegabe aritu direla eta baztertu zaituztela. Eskatu duzu zure izen ona berreskuratu eta tutore moduan hartutako erabakiak errespetatu dituztela.</p>	

Kasua	<u>JOSEBA (AITA) ETA KARMEN (TUTOREA)</u> P. San Juanen Materiales para la formación liburutik egokitua.
Gaia	Zigor bat dela-eta familiak jarritako erreklamazioa
Orria honendako	Joseba (aita)
<p>1.B mailako tutorea da Karmen. Astelehenean, klasera iritsi zenean, Josu eta Markel ikasleak borrokan ari ziren. Tutoreak bereizi zituen, parte bana egin zien eta egotzitakoen gelara bidali zituen. Gorabeheren erregistroan ez baitzuten deus ere idatzi, ikastetxearen bizikidetzara araudiaren arabera zigortu zituen. Josuren aitak, bere semearekin hitz egin ondoren, uste du tutoreak ez duela zuzen jokatu eta zuzendariaren aurrean erreklamazioa aurkeztu du.</p> <p><u>JOSEBA</u> Uste duzu tutorea ezgauza dela. Liskarra hasi zuena beste ikaslea da, zure semea beti molestatzen eta gogaitzen ari dena. Azkenean, bere burua defendatu beharra dauka. Tutoreak ez daki edo ez du jakin nahi beste mutil horrek nola jokatzen duen klasean. Ez duzu ulertzen halakoak nola izan daitezkeen ikasgela bateko tutore. Gaur ikastetxera joan zara zuzendariaren aurrean kexa egitera, irakasleari ederrenak eta bi esatera. Zure ustez, zure semeak babestuago egon beharko luke eskolan. Zigorra kentzea nahi duzu ez delako batere justua.</p>	

Bitartekotzak ikastetxean dituen abantailak eta desabantailak		cos09a03
Erantzun bakarka ondoko galderak eta gero saiatu talde txikian erantzun bakarra adosten eta, azkenik, talde handian batera ekarri.		
Zuen ustez, zuen ikastetxean bitartekotza ezartzeak zer abantaila eta desabantaila ditu? (bakoitzetik hiru gutxienez aipatu)		
ABANTAILAK	DESABANTAILAK	
Zuen ustez, eskolako zein egoeratan erabil daiteke bitartekotza gatazkak konpontzeko tresna modura?:		

HAMARGARREN SAIOA: Bitartekotzan (II).	cos10a00
<p>HELBURUAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bitartekotzarako beharrezkoak diren trebetasunak praktikatzea.• Praktikan jarritako estrategien gainean hausnar egitea.• Garatutako jarduerak ebaluatzea. <p>JARDUERAK:</p> <ul style="list-style-type: none">• “Bitartekotzan”. Hirukoteka egindako bitartekotza-kasuak erakusteko jarduera (denek hartuko dute bitartekariaren rola). Aztertzea eta bateratzea elkarrizketarako gidoi bat erabiliz.• “Amaierako balantzea”. Prestakuntzan zehar egindako jarduerak ebaluatzeko jarduera.	

BITARTEKOTZAN	cos10a01
<p>Parte-hartzaile guztiak 3 pertsonako taldeetan jarriko dira. Hiru lagun horietatik bi gatazka bateko bi aldeak izanen dira eta hirugarrena, berriz, bitartekaria.</p> <p>Gatazka batean bitartekari aritu ondoren, beste bat egingen da rolak trukatzuz. 3 pertsonak bitartekari aritu daitezzen, 3 kasu desberdin eskainiko dira.</p> <p>Kasu bakoitzean, alde bakoitzak gatazkan duen rolaren gaineko materiala izanen du. Gatazka bakoitzean, bitartekariari kasua eta "Bitartekariarendako gidoi laburra" emanen zaizkio.</p> <p>Kasu bakoitza bukatu ondoren, gatazkako aldean rola bete dutenek "Aldeak ordezkatu dituztenendako hausnarketa" izeneko galdera-sorta beteko dute. Ohar horiek bildu eta talde guztietan bitartekotzak bukatu ondoren, bateratzea egingen da.</p>	

Bitartekariarendako gidoi laburra

6. Aurkezpena:

- banaketa garrantzitsua da: ez jarri aldeak parez pare
- azaldu aldeei prozesua eta arauak zertan dautzan
- erabaki denbora
- azaldu bitartekariaren rola zein den

7. Kontaidazu:

- lagundu aldeei esan beharrekoa esan dezaten, beren beharrak eta interesak zein diren adieraz ditzaten
- entzun emozioak eta sentimenduak
- orekatu aldeen parte-hartzea
- baimendu isiluneak

8. Argitu arazoa:

- bereizi gatazkako alde funtsezkoa
- puntu garrantzitsuak laburtu
- ikuspuntu desberdinak argitu eta onartu
- zehaztu puntu komunak
- deskalifikazio pertsonalak berbideratu, baleude
- perspektiba berriak sortu, gauzak beste ikuspuntu batetik ikusten lagundu

9. Aukerak edo soluzioak:

- orientabideak eman gerora begira: lortu nahi denari buruz
- azpimarratu baikortasuna: zer nahi den eta ez horrenbeste zer ez den nahi
- "ideia zaparrada" egin
- prozesuan zehar aldeek ekarritako ideiak berreskuratu
- ez proposatu soluziorik (neutraltasuna mantendu)

10. Erabakiak:

- proposamenak ebaluatzen lagundu, aldeko eta kontrakoekin
- erabakia errealista eta egingarria izan dadin ahalengindu
- erabakia idatzi
- aurrerakuntza ebaluatzeko data finkatu
- aldeen parte-hartzea eta ekarpena onartu eta baloratu
- erabaki bat lortu izana ospatu

Aldeak ordezkatu dituztenendako hausnarketa

1. Nola zaude?
2. Zer esku-hartzek lagundu zaituzte zure beharrak eta interesak argitzen?
3. Zure sentimenduak azaltzeko aukerarik izan duzu? Entzun zaituzte?
4. Gatazkari soluzioak aurkitzerakoan, zer laguntza eman dizu bitartekariak?
5. Pozik zaude lortu den erabakiarekin?
6. Zer ez da izan zure gustukoa?
7. Egin nahi dituzun bestelako oharrak:

<p>1. kasua</p>	<p>MIKEL (TUTOREA) ETA MARISA (MIRENen ama) M. Etxeberria-ren ideia. P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.</p>
<p>Gaia</p>	<p>Familiaren eta irakaslearen arteko harreman txarra</p>
<p>Orria honendako</p>	<p>Prestakuntzaren dinamizatzaileria</p>
<p>Mikel 4.C taldearen matematikako irakaslea eta tutorea da. Ikasturte hasieran konturatu zen Miren H. zegoela bere taldean eta zuzenean joan zitzaiola ikasketa-buruari galdezka ea bera tutoretzaz edo Miren taldez aldatzerik bazuen. Aurreko ikasturtean Mirenen amarekin arazoak izan zituen eta, azkenean, gaizki bukatu zuten. Beldur zen aurtengo ikasturtean harremana hasieratik oker hasiko zela. Ikasketa-buruak esan zion ezin zela deus ere egin eta gauzak zeudenean onartu beharko zituela.</p> <p>Hark ez zekien iazko ikasturtean, 1. ebaluazioaren ondoren – Mirenek 3 izan zuen matematikan– amak Mikelekin mintzatzea eskatu zuela. Elkarrizketa hartan, Mikelek Mirenen amari esan zion arazo asko zituela bere alabak, klasean pasiboa zela, ez zuela ikasten, ez zuela inoiz parte hartzen eta, seguruenik, ez zuela kurtsoa gaindituko. Amak argudio hauek eman zituen: Mirenek ez zuela ordurarte arazorik izan Matematikan, DBHko 2. kurtsoa arte nota onak atera zituela, etxean beti bezala ikasten zuela eta, orobat, arazoa ulermenean zegoela, hau da, irakasleak azalpenak gaizki ematen zituela.</p> <p>Gaia asko okertu zen eta bi aldeek bata besteari zernahi esan zioten. Amak kexa egin zion tutoreari eta Zuzendaritzara, Ikuskapenera edo noranahira joateko mehatxua egin zuen.</p> <p>Ikasturte osoan zehar egoera tirabiratsua izan zen – tutorearen bidezko mezuekin– eta behin batean neska bat etorri eta esan zuen klase partikularrak ematen zizkiola. Azkenean, Mirenek gainditu zuen 5 eskas batekin.</p> <p>Hori hala izanik, Mikelek beldurturik eman zion hasiera ikasturteari familiaren erreakzioaren beldur baitzen. Gutxi balitz bezala, Mirenek Matematikako lehen azterketa ez du gainditu. Berandu izan baino lehenago, Mikelek familiarekin mintzatu nahi du, baina beldur da.</p> <p>Azkenean, orientatzailearekin hitz egin du eta hark bi aldean artean bitartekari arituko dela esan dio.</p>	

MIKEL

4.A taldeko matematikako irakaslea eta tutorea zara. Taldean Miren H. dago. Iazko ikasturtean klase eman zenion berari eta taldeko beste batzuei. "Eztabaida" zakarra izan zenuen Mirenen amarekin. 1. ebaluazioaren ondoren –Mirenek 3 atera zuen–, amak zurekin hitz egin nahi zuela esan zion tutoreari ez baitzuen ulertzen zergatik atera ote zuen nota hori.

Elkarrizketan azaldu zenion (amari) nota hori jarri zeniola kontrolengatik eta klaseko lanengatik. Amak esan zizun Mirenek ez zuela ordura arte arazorik izan Matematikan, DBHko 2. kurtsora arte nota onak atera zituela eta, orobat, arazoa ulermenean zegoela, hau da, ez zizula ulertzen azalpenak gaizki ematen dituzulako.

Gaia korapilatzen joan zen eta Mirenen amaren azalpen batzuk zure onetik atera zaituzten: "gertatzen dena da ez dakizula azalpenak ematen eta ez zarela kezkatzen zure ikasleek ulertzen eta ikasten ote duten" edo "zure moduko irakasleekin ez naiz harritzen ikasleek ez ikastea eta desanimatzea" eta abar. Beraz, zuk ere azalpen iraingarriak egin zenituen. Harremana tirabiratsua izan zen ikasturte osoan eta, gainera, hirugarrenen bidez (tutorea, Mirenen irakasle partikularra...). Horretaz gainera, hor zegoen ama, Ikuskapenera joanen zela mehatxu eginez.

Aurtengo ikasturtean saiatu zara taldez aldatzen, baina ikasketa-buruak ez du onartu zure eskaera oso zaila delako.

Gainera, beldur zinen zer gertatuko zen. Eta hala izan da: Mirenek ez du lehen azterketa gainditu. Familiari deitu nahi diozu, uste baituzu zure eginbeharra dela eta familiak hasieratik egoeraren berri izan behar duelako. Bestalde, beldur zara ama zer jarrerarekin etorriko zaizun eta egoerak gora eta gora egiten duela, inolako irteerarik gabe. Emakume horrek zure onetik atera zintuen eta ez duzu bigarrenez halakorik jasan nahi.

Orientatzaileari esan diozu eta bitartekari aritzeko eskaintza egin dizu.

MARISA (MIRENen AMA)

Gertatzen da iazko ikasturtean Mikel Mirenen matematika irakaslea izan zela eta harekin "eztabaida" izan zenuela. 1. ebaluazioaren ondoren –Mirenek 3 izan zuen–, berarekin hitz egitea eskatu zenuen ez baitzenuen ulertzen zer dela-eta atera zuen Mirenek nota hori.

Elkarrizketan, Mikelek esan zizun Mirenen 5 nota zituela: 3tan galdetu eta ez zuen jakin erantzuna, eta 2 kontroletan 2 eta 4 atera zituen. Mikelek uste zuen Mirenek zailtasun handiak zituela, klasean jarrera pasiboa zuela, eta gutxi ikasi eta lan

gutxi egiten zuela eta, orobat, hala segituz gero ez zuela kurtsua gaindituko.

Harritu egin zinen eta esan zenion Mirenek ez zuela ordura arte arazorik izan Matematikan, DBHko 2. kurtsora arte nota onak atera zituela eta etxean beti bezala ikasten ari zela ikusten zenuela. Zure ustez, kontua zen irakasleak ez zituela modu argian ematen azalpenak eta, hori dela-eta, Mirenek ez ziola ulertzen eta desanimatzen ari zela.

Mikelek oldarkor erantzun zuen eta egoera okertzen joan zen; elkarri irain aski latzak egin zenizkioten. Gogoan duzu nola esan zizun Mikelek hobe zenuela zure alabaz gehiago arduratu eta ikusi ikasten ote zuen edo etxeko lanak egiten ote zituen. Egia esan behar bada, horrek asko mindu zintuen. Zu ere ez zinen atzean gelditu. Hala ere, Mikelek bukatzeko sastaka ederra sartu zizun: "irakasleok ez ditugu familiako arazoak konpondu behar". Hori entzun ondoren, oso haserre joan zinen eta hala esan zenion tutoreari. Burutik pasatu zitzaizun Zuzendaritzan kexa egitea, baita Hezkuntzara joan eta ikuskatzailearekin hitz egitea ere. Baina, azkenean, gauzak gehiago ez nahastea erabaki zenuen. Ez zenuen gehiago hitz egin harekin ikasturtean zehar. Esan beharrekoak tutorearen bitartez esan zenituen. Mireni irakasle partikularra jarri zenioten eta, azkenean, 5 "soil-soil" bat atera eta azterketa gainditu zuen, urte osoa Matematikarekin beldurrak egon ondoren.

Aurten, berriz egokitu zaio Mireni Mikel, irakasle modura eta, are okerrago, taldeko tutore modura. Bere ama zara eta beldur zara nolakoa izan den tutore horrekin harremana. Mirenek Matematikako lehen azterketa ez du gainditu eta nahi zenuke Mikelekin mintzatu eta harekin batera lan egin -Miren arrastoa galduta balu bezala dabil, nerabemoko baten pare-. Baina ez zara fidatzen eta ez duzu nahi une txarrik igaro eta gauzak okertu. Orientatzailearengana joan zara eta eskatu diozu, ahal badu, tutorez alda dezatela Miren, baina esan dizu ezinezkoa dela. Ordainetan, iradoki dizu zuk eta Mikelek elkarrekin hitz egin behar duzuela eta, ahal bada, gertatutakoa konpondu behar duzuela. Bere burua eskaini dizu bitartekari aritzeko edo denen arteko elkarrizketa bat antolatzeko, topaketa eta lankidetzaz erraztearren.

1. kasua	MIKEL (TUTOREA) ETA MARISA (MIRENen ama) M. Etxeberria-ren ideia. P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	Familiaren eta irakaslearen arteko harreman txarra
Orria honendako	Bitartekaria
<p>Irakasle baten eta familia baten arteko desadotasun baten berri izan duzu. Bitxia da, gero: azken aste honetan bi aldeek zuregana jo dute laguntza eskatzera.</p> <p>Mikel 4.C taldearen matematikako irakaslea eta tutorea da. Ikasturte hasieran konturatu zen Miren H. zegoela bere taldean eta zuzenean joan zitzaiola ikasketa-buruari galdezka ea bera tutoretzaz edo Miren taldez aldatzerik bazuen. Aurreko ikasturtean Mirenen amarekin arazoak izan zituen eta, azkenean, gaizki bukatu zuten. Beldur zen aurtengo ikasturtean harremana hasieratik oker hasiko zela. Ikasketa-buruak esan zion ezin zela deus ere egin eta gauzak zeudenean onartu beharko zituela.</p> <p>Iazko ikasturtean, 1. ebaluazioaren ondoren –Mirenek 3 atera zuen Matematikan–, irakasleak eta amak elkarrizketa izan ondoren gaizki bukatu zuten. Bi aldeek elkarri irainak egin zizkioten eta ikasturtean zehar ez ziren gehiago elkartu.</p> <p>Amak kexa egin zion tutoreari eta Zuzendaritzara, Ikuskapenera edo noranahira joateko mehatxua egin zuen.</p> <p>Ikasturte osoan zehar egoera tirabiratsua izan zen; mezuak elkarri bidaltzeko tutorearengana jotzen zuten. Gurasoek Mireni irakasle partikularra jarri ondoren, Mirenek 5 doi-doi batekin gainditu zuen.</p> <p>Hori hala izanik, Mikelek beldurturik eman zion hasiera ikasturteari familiaren erreakzioaren beldur baitzen. Gutxi balitz bezala, Mirenek Matematikako lehen azterketa ez du gainditu. Mikelek bi gauza nahi ditu: bata, berandu izan baino lehenago familiarekin hitz egin eta, bi, ez du nahi iazko ikasturteko istilurik berriz gertatzea.</p> <p>Ama beldur da tutore horrekin izan beharreko harremana nolakoa izanen den; harekin hitz egin nahiko luke Miren arrastoa galduta balu bezala baitago, nerabemoko baten pare. Oso kezkatu dago, baina harreman kaskarrak bere</p>	

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

horretan dirau eta ez da fidatzen, ez luke une txarrik igaro nahi eta gauzak okertu.

<p>1. kasua</p>	<p>MIKEL (TUTOREA) ETA MARISA (MIRENen ama) M. Etxeberria-ren ideia. P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.</p>
<p>Gaia</p>	<p>Familiaren eta irakaslearen arteko harreman txarra</p>
<p>Orria honendako</p>	<p>Mikel (Tutorea)</p>
<p><u>MIKEL</u></p> <p>4.A taldeko matematikako irakaslea eta tutorea zara. Taldean Miren H. dago. Iazko ikasturtean klase eman zenion berari eta taldeko beste batzuei. "Eztabaida" zakarra izan zenuen Mirenen amarekin. 1. ebaluazioaren ondoren –Mirenek 3 atera zuen–, amak zurekin hitz egin nahi zuela esan zion tutoreari ez baitzuen ulertzen zergatik atera ote zuen nota hori. Elkarrizketan azaldu zenion (amari) nota hori jarri zeniola kontrolengatik eta klaseko lanengatik. Amak esan zizun Mirenek ez zuela ordura arte arazorik izan Matematikan, DBHko 2. kurtsora arte nota onak atera zituela eta, orobat, arazoa ulermenean zegoela, hau da, ez zizula ulertzen azalpenak gaizki ematen dituzulako.</p> <p>Gaia korapilatzen joan zen eta Mirenen amaren azalpen batzuk zure onetik atera zintuzten: "gertatzen dena da ez dakizula azalpenak ematen eta ez zarela kezkatzen zure ikasleek ulertzen eta ikasten ote duten" edo "zure moduko irakasleekin ez naiz harritzen ikasleek ez ikastea eta desanimatzea" eta abar. Beraz, zuk ere azalpen iraingarriak egin zenituen. Harremana tirabiratsua izan zen ikasturte osoan eta, gainera, hirugarrenen bidez (tutorea, Mirenen irakasle partikularra...). Horretaz gainera, hor zegoen ama, Ikuskapenera joanen zela mehatxu eginez.</p> <p>Aurtengo ikasturtean saiatu zara taldez aldatzen, baina ikasketa-buruak ez du onartu zure eskaera oso zaila delako. Gainera, beldur zinen zer gertatuko zen. Eta hala izan da: Mirenek ez du lehen azterketa gainditu. Familiari deitu nahi diozu, uste baituzu zure eginbeharra dela eta familiak hasieratik egoeraren berri izan behar duelako. Bestalde, beldur zara ama zer jarrerarekin etorriko zaizun eta egoerak gora eta gora eginen duela, inolako irteerarik gabe. Emakume horrek zure onetik atera zituen eta ez duzu bigarrenez halakorik jasan nahi.</p> <p>Orientatzaileari esan diozu eta bitartekari aritzeko eskaintza</p>	

Irakasleak bizikidetzan trebatzeko materialak.

egin dizu.

1. kasua	MIKEL (TUTOREA) ETA MARISA (MIRENen ama) M. Etxeberria-ren ideia. P. San Juanen <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	Familiaren eta irakaslearen arteko harreman txarra
Orria honendako	MARISA (MIRENen AMA)

MARISA (MIRENen AMA)

Gertatzen da iazko ikasturtean Mikel Mirenen matematika irakaslea izan zela eta harekin "eztabaida" izan zenuela. 1. ebaluazioaren ondoren –Mirenek 3 izan zuen–, berarekin hitz egitea eskatu zenuen ez baitzenuen ulertzen zer dela-eta atera zuen Mirenek nota hori.

Elkarrizketan, Mikelek esan zizun Mirenen 5 nota zituela: 3tan galdetu ez zuen jakin erantzuna, eta 2 kontroletan 2 eta 4 atera zituen. Mikelek uste zuen Mirenek zailtasun handiak zituela, klasean jarrera pasiboa zuela, eta gutxi ikasi eta lan gutxi egiten zuela eta, orobat, hala segituz gero ez zuela kurtsoa gaindituko.

Harritu egin zinen eta esan zenion Mirenek ez zuela ordura arte arazorik izan Matematikan, DBHko 2. kurtsora arte nota onak atera zituela eta etxean beti bezala ikasten ari zela ikusten zenuela. Zure ustez, kontua zen irakasleak ez zituela modu argian ematen azalpenak eta, hori dela-eta, Mirenek ez ziola ulertzen eta desanimatzen ari zela.

Mikelek oldarkor erantzun zuen eta egoera okertzen joan zen; elkarri irain aski latzak egin zenizkioten. Gogoan duzu nola esan zizun Mikelek hobe zenuela zure alabaz gehiago arduratu eta ikusi ikasten ote zuen edo etxeko lanak egiten ote zituen. Egia esan behar bada, horrek asko mindu zintuen. Zu ere ez zinen atzean gelditu. Hala ere, Mikelek bukatzeko sastaka ederra sartu zizun: "irakasleok ez ditugu familiako arazoak konpondu behar". Hori entzun ondoren, oso haserre joan zinen eta hala esan zenion tutoreari. Burutik pasatu zitzaizun Zuzendaritzan kexa egitea, baita Hezkuntzara joan eta ikuskatzailearekin hitz egitea ere. Baina, azkenean, gauzak gehiago ez nahastea erabaki zenuen. Ez zenuen gehiago hitz egin harekin ikasturtean zehar. Esan beharrekoak tutorearen bitartez esan zenituen. Mireni irakasle partikularra jarri zenioten eta, azkenean, 5 "soil-soil" bat atera eta azterketa gainditu zuen, urte osoa Matematikarekin beldurrak egon ondoren.

Aurten, berriz egokitu zaio Mireni Mikel, irakasle modura eta, are okerrago, taldeko tutore modura. Bere ama zara eta beldur zara nolakoa izanen den tutore horrekin harremana. Mirenek Matematikako lehen azterketa ez du gainditu eta nahi zenuke Mikelekin mintzatu eta harekin batera lan egin -Miren arrastoa galduta balu bezala dabil, nerabemoko baten pare-. Baina ez zara fidatzen eta ez duzu nahi une txarrik igaro eta gauzak okertu. Orientatzailearengana joan zara eta eskatu diozu, ahal badu, tutorez alda dezatela Miren, baina esan dizu ezinezkoa dela. Ordainetan, iradoki dizu zuk eta Mikelek elkarrekin hitz egin behar duzuela eta, ahal bada, gertatutakoa konpondu behar duzuela. Bere burua eskaini dizu bitartekari aritzeko edo denen arteko elkarrizketa bat antolatzeko, topaketa eta lankidetzaz erraztearren.

2. kasua	IRAKASLEA ETA IKASLEA P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	MP3 bat kendu diote ikasle bati
Orria honendako	Prestakuntzaren dinamizatzaileria
<p>Bizikidetzako araudia ezarriz, irakasle batek ikasle bati eskatu dio ikastetxearen barnean erabiltzen ari den mp3 tresna eman diezaion. Irakasleak ezetz esan dio eta horretarako doinu, keinu eta hitz mespretxuzkoak erabili ditu.</p> <p><u>IKASLEA</u> Irakasleak ezin dit objektu pertsonal bat bahitu, korridorean eta inor molestatu gabe erabiltzen ari nintzen tresna bat. Ez du eskubiderik. Harro jarri da eta nik merezi zuena eman diot ordainetan. MP3-a nire neska-lagunarena da, utzi egin dit eta ezin diot irakasleari eman. Gainera, ez diot zertaz eman.</p> <p><u>IRAKASLEA</u> Ikastetxeko araudia bete duzu eta MP3-a eskatu diozu korridorean erabiltzen ari zen ikasleari. Mutilak ez zaitu ongi hartu. Askok ozartu da eta lotsa galdu dizu. Uste duzu haren errespetu gabezia eta desobedientzia guztiz direla onartezinak. Esan duzu ez zarela zure gelan sartuko hark barkamena eskatu arte. MP3-a entregatu behar du.</p>	

2. kasua	IRAKASLEA ETA IKASLEA P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	MP3 bat kendu da
Orria honendako	Bitartekaria
<p>Bizikidetzako araudia ezarriz, irakasle batek ikasle bati eskatu dio ikastetxearen barnean erabiltzen ari den mp3 tresna eman diezaion. Irakasleak ezetz esan dio eta horretarako doinu, keinu eta hitz mespretxuzkoak erabili ditu.</p>	

2. kasua	IRAKASLEA ETA IKASLEA P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	MP3 bat kendu da
Orria honendako	IRAKASLEA
<p><u>IRAKASLEA</u> Ikastetxeko araudia bete duzu eta MP3-a eskatu diozu korridorean erabiltzen ari zen ikasleari. Mutilak ez zaitu ongi hartu. Asko ozartu da eta lotsa galdu dizu. Uste duzu haren errespetu gabezia eta desobedientzia guztiz direla onartezinak. Esan duzu ez zarela zure gelan sartuko hark barkamena eskatu arte. MP3-a entregatu behar du.</p>	

2. kasua	IRAKASLEA ETA IKASLEA P. San Juanen <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.
Gaia	MP3 bat kendu da
Orria honendako	IKASLEA
<p><u>IKASLEA</u> Irakasleak ezin dit objektu pertsonal bat bahitu, korridorean eta inor molestatu gabe erabiltzen ari nintzen tresna bat. Ez du eskubiderik. Harro jarri da eta nik merezi zuena eman diot ordainetan. MP3-a nire neska-lagunarena da, utzi egin dit eta ezin diot irakasleari eman. Gainera, ez diot zertan eman.</p>	

<p>3. kasua</p>	<p>MARIA ETA DANI P. San Juan-en <i>Materiales para la formación</i> liburutik egokitua.</p>
<p>Gaia</p>	<p>Eraso matxista eta erantzuna</p>
<p>Orria honendako</p>	<p>Prestakuntzaren dinamizatzailerak</p>
<p>Aski gorabehera larria da hau, atzo korridore erdian gertatu zena.</p> <p>Klase batetik besterako tartean zalaparta handia zen; hantxe zebiltzan oso aztoratuta bigarren eta hirugarren kurtsoko neska-mutilak. Josu eta Luisa 2.B-ko eta 3.F-ko tutoreak dira. Hantxe aurkitu zuten Dani, ahotik odola bor-bor zeriola. Mutilek ziotenaren arabera, Mariak ostikada eman zion mutilak ipurdia ukitu ziolako.</p> <p><u>MARIA</u></p> <p>Korridorean zindoazen Ainhoarekin eta Leirerekin batera. Hantxe zeuden hirugarren kurtsoko astun horiek, egun oso tontakeriak esaten dabiltzan horiek. Eta halako batean norbaitek zaplaztada eman dizu ipurdian. Deskarga elektriko baten moduko zerbait izan da. Buelta eman eta pentsatu gabe ahoan ostikada eman diozu ipurdia ukitu dizunari, Daniri, hain zuzen ere. Ez zara damutzen ostikada emateaz, ipurdian zaplaztada sentitu duzunean min hartu baituzu. Hala ere, beldurtu zara odoletan ikusi duzunean, harriturik, eta min egiteaz damutzen zara. Lehendabizi, txantxa egon da eta, gero, isiltasuna...; gogoan dituzu hirugarren kurtsoko guztiak begiak zabal-zabalik.</p> <p>Gustatuko litzaizuke esatea hori ez dela neskekin harremanetan jartzeko modua, oihu egin nahi zenieke denei. Ederra izanen da orain Ikasketa-burutzan gertatuko dena; ostikada ikusgarria izan da, baina ongi merezitakoa.</p> <p><u>DANI</u></p> <p>Maria neska katxarroa da eta mutil guztiek hartaz hitz egiten ari zarete. Zure lagun-taldean apustu egin duzue: ea nor den gai ipurdia ukitzeko. Neskak igaro direnean, bigarren eta hirugarren klasearen artean, hantxe zeundeten lagun guztiak korridorean. Ez bat eta ez bi, zaplada eman diozu ipurdian, zapladatxoa, ez baitu soinurik ere egin. Bat-batean, jiratu eta hitzik ere esan gabe ostikada jo dizu ahoan; odoletan eta ergel aurpegiarekin gelditu zara. Lotsaturik zaude barregarri gelditu baitzara jende guztiaren aurrean. Beharbada gehiegizkoa izan da ipurdia ukitzea, baina ostikada ere ez da</p>	

gutxiagokoa izan. Ez duzu zu zigortzea nahi. Zure gurasoek honen berri izatea pentsatze hutsak, ilea laztu egiten zaizu. Ikasturte osoan futbolik ikusi gabe zigortzeko gai dira. Beldur zara eta gertatutakoaz lotsaturik zaude.

3. kasua	MARIA ETA DANI <i>P. San Juan-en Materiales para la formación liburutik egokitua.</i>
Gaia	Kolpeak korridorean. (Eraso matxista eta erantzuna)
Orria honendako	Bitartekaria
<p>Ikasketa-buruak bitartekotzarakoa izan daitekeen kasu bat ekarri dizu. Aski gorabehera larria da hau, atzo korridore erdian gertatu zena.</p> <p>Klase batetik besterako tartean, zalaparta handia zen. Josu eta Luisa 2.B-ko eta 3.F-ko tutoreak Dani aurkitu zuten ahotik odola bor-bor zeriola. Mutilek ziotenaren arabera, Mariak ostikada eman zion mutilak ipurdia ukitu ziolako.</p> <p>Ezarriko den zigorra gorabehera, Bitartekotzara bideratu da gaia. Ikasketa-buruak uste du gaia garrantzitsua dela eta zigorraz haratago joan behar dela, gaia konpondu behar dela alegia.</p>	

3. kasua	MARIA ETA DANI <i>P. San Juan-en Materiales para la formación liburutik egokitua.</i>
Gaia	Kolpeak korridorean. (Eraso matxista eta erantzuna)
Orria honendako	Maria
<p><u>MARIA</u></p> <p>Korridorean zindoazen Ainhoarekin eta Leirerekin batera. Hantxe zeuden hirugarren kurtsoko astun horiek, egun osoa tontakeriak esaten dabiltzan horiek. Eta halako batean norbaitek zaplaztada eman dizu ipurdian. Deskarga elektriko baten moduko zerbait izan da. Buelta eman eta pentsatu gabe ahoan ostikada eman diozu ipurdia ukitu dizunari, Daniri, hain zuzen ere. Ez zara damutzen ostikada emateaz, ipurdian zaplaztada sentitu duzunean min hartu baituzu. Hala ere, beldurtu zara odoletan ikusi duzunean, harriturik, eta</p>	

min egiteaz damutzen zara. Lehendabizi, txantxa egon da eta, gero, isiltasuna...; gogoan dituzu hirugarren kurtsoko guztiak begiak zabal-zabalik. Gustatuko litzaizuke esatea hori ez dela neskekin harremanetan jartzeko modua, oihu egin nahi zenieke denei. Ederra izanen da orain Ikasketa-burutzan gertatuko dena; ostikada ikusgarria izan da, baina ongi merezitakoa.

3. kasua	MARIA ETA DANI P. San Juanen Materiales para la formación liburutik egokitua.
Gaia	Kolpeak korridorean. (Eraso matxista eta erantzuna)
Orria honendako	DANI
<p><u>DANI</u> Maria neska katxarroa da eta mutil guztiek hartaz hitz egiten ari zarete. Zure lagun-taldean apustu egin duzue: ea nor den gai ipurdia ukitzeko. Neskak igaro direnean, bigarren eta hirugarren klasearen artean, hantxe zeundeten lagun guztiak korridorean. Ez bat eta ez bi, zaplada eman diozu ipurdian, zapladatxoa, ez baitu soinurik ere egin. Bat-batean, jiratu eta hitzik ere esan gabe ostikada jo dizu ahoan; odoletan eta ergel aurpegiarekin gelditu zara. Lotsaturik zaude barregarri gelditu baitzara jende guztiaren aurrean. Beharbada gehiegizkoa izan da ipurdia ukitzea, baina ostikada ere ez da gutxiagokoa izan. Ez duzu zu zigortzea nahi. Zure gurasoek honen berri izatea pentsatze hutsak, ilea laztu egiten zaizu. Ikasturte osoan futbolik ikusi gabe zigortzeko gai dira. Beldur zara eta gertatutakoaz lotsaturik zaude.</p>	

Amaierako balantzea	cos10a02
<p>HELBURUA: Amaierako ebaluazioa egitea talde handian.</p> <p>PROZEDURA: Parte-hartzaileek 5 minutuan galdera hauek bi esaldi zehatzekin erantzun beharko dituzte_ "Egin den lanetik, zer izan da gehien gustatu zaizuna?" "Egin diren saioetatik, zer izan da gutxien gustatu zaizuna?" Batera jarri modu askean eta solasaldia hasi denen artean.</p> <p>R. Hostie-tik (1994) egokitua (1994)</p>	